

BARNE-ARAUDIA



AURKIBIDEA

ATARIKOA

1. Xedea	5
2. Printzipio dinamizatzaileak	
3. Fondo publikoekin eginiko ikastetxearen mantentze partziala	

I) HEZKUNTZA-ELKARTEA

4. Kideak	
5. Eskubideak	
6. Betebeharrak	
7. Bizikidetzako arauak	6
1) ERAKUNDE TITULARRA	
8. Erakunde Titularra	
9. Eskubideak	
10. Betebeharrak	7
11. Ordezkaritza	
2) IKASLEAK	
12. Eskubideak	
13. Betebeharrak	
14. Asanblada eta klasera ez etortzeari buruzkoa	8
15. Onartzea	9
3) IRAKASLEAK	
16. Eskubideak	
17. Betebeharrak	
18. Onartzea	10
4) GURASOAK	
19. Eskubideak	
20. Betebeharrak	
5) ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA	
21. Eskubideak	
22. Betebeharrak	11
23. Onartzea	
6) BESTE HAINBAT KIDE	
24. Beste hainbat kide	
25. Eskubideak	
26. Betebeharrak	
7) PARTEHARTZEA	
27. Ezaugarriak	
28. Eremuak	
29. Eremu pertsonala	
30. Organo kolegiatuak	
31. Elkarteak	
32. Ikasleen ordezkariek	12

II) HEZKUNTZA-JARDUERA

33. Printzipioak	13
1) IKASTETXEAREN PLANIFIKAZIO, ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA-AGIRIAK	
34. Berezko lizaera	
35. Misioa, Jomuga eta Balioak	
36. Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua	
37. Ikastetxearen Curriculum-Proiektua	
38. Ikastetxearen Hizkuntza-Proiektua	14
39. Ikastetxearen Bizikidetzeta-Plana	
40. Plan estrategikoa	
41. Urteko Egitasmoa	

42. Urteko Antolakuntza	14
2) GELAKO JARDUERA	
43. Gelako Programazioa	15
44. Ikastetxeko hezkuntza-jardueraren ebaluazioa	
45. Ikasleen ebaluazioa	
III) GOBERNU ETA KUDEAKETA-ORGANOAK	
46. Gobernu eta kudeaketa-organoak	16
1) PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK	
1.1 Ikastetxeko Zuzendari Orokorra eta Saitetako Zuzendariak	
47. Eskumenak	
48. Ikastetxeko Zuzendari Orokorren izendatzea, kargutik kentzea eta absentzia	17
1.2 Ikastetxeko Administratzailea	
49. Eskumenak	
50. Izendapena eta kargutik kentzea	18
1.3 Etapako Arduradunak	
51. Eskumenak	
52. Eremua, izendapena eta kargutik kentzea	
1.4 Pastoral-Arduraduna	
53. Eskumenak	
54. Izendapena eta kargutik kentzea	
1.5 Ikastetxeko Idazkaria	
55. Eskumenak	
56. Izendapena eta kargutik kentzea	19-20
1.6 Kalitate-Arduraduna	
57. Eskumenak	
58. Izendapena eta kargutik kentzea	
2) ORGANO KOLEGIATUAK	
2.1 Zuzendaritza-Taldea	
59. Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldea	
60. Eskumenak	
61. Jarduerako araubidea	21
2.2 Eskola-Kontseilua	
62. Eskola-Kontseilua	
63. Osaera	
64. Hautaketa, izendapena eta bete gabeko postuak	22
65. Eskumenak	
66. Jarduerako araubidea	
2.3 Irakasleen Klastroak	
67. Irakasleen Klastroak	23
68. Eskumenak	
69. Sailak eta haien eskuduntzak	
70. Jarduerako araubidea	
71. Mailak, Zikloak eta Etapak	
2.4 Pastoral-Taldea	
72. Pastoral-Taldea	
73. Osaera	24
74. Eskumenak	
IV) HEZKUNTZA KOORDINAZIORAKO ORGANOAK	
75. Hezkuntza-Koordinaziorako Organoak	
1) PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK	
1.1 Orientatzailea	
76. Eskumenak	
77. Izendapena eta kargu-uztea	
1.2 Hizkuntza-Proiektuaren Arduraduna	
78. Eskumenak	25
79. Izendapena eta kargu-uztea	
1.3 Zikloko Koordinatzailea	
80. Eskumenak	
81. Izendapena eta kargu-uztea	
1.4 Departamentu-burua	
82. Eskumenak	

83. Izendapena eta kargu-uztea	25
1.5 Tutorea	
84. Eskumenak	
85. Izendapena eta kargu-uztea	26
1.6 Liburuzaina	
86. Eskumenak	
87. Izendapena eta kargu-uztea	
2) ORGANO KOLEGIATUAK	
2.1 Irakasle-Taldea	
88. Eskumenak	
89. Izendapena eta kargu-uztea	
2.2 Orientazio eta Aniztasunaren Trataerako Departamentua	
90. Eskumenak	
91. Izendapena eta kargu-uztea	
2.3 Hizkuntza-Proiektu eta Euskararen Normalkuntzarako Departamentua	
92. Eskumenak	27
93. Izendapena eta kargu-uztea	
2.4 Bestelako Departamentuak	
94. Eskumenak	
95. Izendapena eta kargu-uztea	
V) BIZIKIDETZA NAHASTEA	
1) ARAU OROKORRAK	
96. Bizikidetzaren balioa	
97. Nahasmendua eta zuzenketa	
2) IKASLEAK	
2.1 Xedapen orokorrak	
98. Eskubideak baliatze eta betebeharrak betetzeko printzipio orokorrak	28
99. Printzipio orokorrak	
100. Bizikidetzaren planak	
101. Zuzendu behar diren jokabideak	
102. Ikasleen adinari egokitzea	
2.2 Jokabide-mota desberdinak	
103. Jokabide desegokiak	
104. Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak	29
105. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak	
106. Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna	30
2.3 Jokabide desegokiaren zuzenketa eta bestelako ondorioak	
107. Jokabide desegokiaren zuzenketa	
108. Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa	
109. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa	31
110. Ikastetxez aldatzeko proposamena	
111. Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik	
112. Oinarritzko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak	32
113. Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna	
114. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak	
2.4 Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak	
115. Xedapen orokorrak	
116. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak	33
117. Prozedura bertan behera uztea adiskidetzeari gertatu delako	
118. Prozedura bertan behera uztea kalte konpondu delako	
119. Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik	
120. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea	
121. Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak	
2.5 Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak	
2.5.1 Xedapen orokorrak	
122. Xedapen orokorrak	34
123. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna	
124. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak	
125. Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua	
126. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea	

127. Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.	34
128. Araudi honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatze bidea	
129. Erreklamazio eta helegiteak	35
2.5.2 Jokabide desegokiak zuzenketa	
130. Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura	
2.5.3 Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko ohiko prozedura	
131. Ohiko prozeduraren erabilera	
132. Hasierako egintzaren gutxieneko edukia	
133. Hasierako jakinarazpena eta aldez aurretiko entzunaldirako zitazioa	
134. Behin-behineko neurriak	
135. Entzunaldiaren izapidea	36
136. Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea	
137. Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea	
138. Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola-Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea	37
139. Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia	
140. Jakinarazpena	
2.5.4 Ohiz kanpoko prozedura	
141. Ohiz kanpoko prozedura noiz erabili beharra dagoen	
142. Ohiz kanpoko prozedurari ekiteko epea	
143. Hasierako egintzaren gutxieneko edukia	
144. Izapidegilea izendatzea	38
145. Hasierako egintzaren nahiz behin-behineko balizko neurrien jakinarazpena	
146. Izapidegilea errefusatzeko aukera	
147. Izapidegilearen jardunak	
148. Jakinarazpena Fiskaltzari	
149. Entzunaldirako zitazioa	
150. Entzunaldiaren izapidea	
151. Ebazpen-proposamena	39
152. Ohiz kanpoko prozedura amaitzeko epea	
153. Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena	
3) HEZKUNTZA-ELKARTEKO GAINERAKO KIDEAK	
154. Zuzenketak	
XEDAPEN GEHIGARRIAK	
1. Erreferentzia	40
2. Lan-harremanak	
3. Irakasle erlijiosoak	
4. Ikastetxeko lagunak	
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	
AZKEN XEDAPENAK	
1. Araudia aldatzea	
2. Indarrean sartzea	

Erakunde Titularrak, Kristau eskoletako Anaiak, aurkeztu zion Barne Araudi hau Eskola-Kontseiluari eta honek 2008ko ekainaren 2ko bileran onetsi zuen.



ATARIKO ATALBURUA

Art. 1.- Xedea.

Araudi honen xedea Donostiako La Salle Ikastetxearen antolakuntza eta funtzionamendua arautzea da, Hezkuntza-elkartea osatzen duten guztien parte-hartzea sustatzearekin batera.

Art. 2.- Printzipio dinamizatzailerak.

Ikastetxearen antolakuntzak eta funtzionamenduak honako printzipio hauek izango ditu:

- 1) Izaera katolikoa.
- 2) Berezko Izaeran dagoen hezkuntza-eskaintzaren burutze osoa.
- 3) Ikastetxea Hezkuntza- Elkarte gisa taxutzea.

Art. 3.- Fondo publikoekin eginiko Ikastetxearen mantentze partziala.

Ikastetxea LODE eta LOEren IV. Atalburuetan arautzen den hezkuntza-hitzarmenen erregimenaren barruan dago eta Euskal Autonomi Elkartearen bizirik dirauten beronen garapenerako.



I. ATALBURUA:

HEZKUNTZA-ELKARTEA

Art. 4.- Kideak.

- 3) Ikastetxea Hezkuntza-Elkarte gisa moldatuta dago non, euren arteko harremanen eta hezkuntza- jardueran duten zereginaren bitartez, Ikastetxearen helburuekin bat etorri eta berauek aberasten dituzten pertsona multzoa dagoen.
- 4) Hezkuntza-elkartearen baitan, Erakunde Titularrak, ikasleek, irakasleek, gurasoek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta beste kolaboratzaileek beraien ekarpena eskaintzen dute, nork bere zereginen eta arduen arabera.
- 5) Barne funtzionamenduari dagokionez, Ikastetxea bi Siletan banatzen da: alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntza, bere Zuzendaria duelarik; bestetik, Bigarren Hezkuntza (DBH-BTX) berearekin. Beraietako bat izango da Ikastetxeko Zuzendari Orokorra. Bigarren Hezkuntza bi etapatan banatuta dago: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa (BTX), bakoitzak etapa-arduradun banarekin. Siletako bi zuzendariek eta etapa-arduradunek osatuko dute Zuzendaritzaren Batzorde Iraunkorra (BI).

Art. 5.- Eskubideak.

Hezkuntza-elkartekideen eskubidea izango da:

- 1) Errespetatuak izatea bai beraien eskubideetan bai beraien segurtasun eta duintasun pertsonalean.
- 2) Ikastetxearen Berezko Izaera, Hezkuntza-Proiektua eta Barne-Araudia ezagutzea.
- 3) Ikastetxearen funtzionamenduan eta bizitzan parte hartzea, oraingo Araudiak dioenaren arabera.
- 4) Estamentu desberdinen bilerak egitea Ikastetxean eskolako gaiak aztertzeko Erakunde Titularraren baimena izan ondoren.
- 5) Hezkuntza-elkarteko estamentu desberdinetako kideen Elkarteak eratzea, legeak dioenaren arabera..
- 6) Aldian aldiko organoaren aurrean idatzizko eskakizunak eta arrangurak aurkeztea.
- 7) Dagokion organoaren aurrean erreklamatzeari, eskubideak zapaldu diren kasuetan.
- 8) Legeetan, Ikastetxearen Berezko Izaeran eta Araudi honetan onartzen diren beste eskubideetan jardutea.

Art. 6.- Betebeharrak.

Hezkuntza-elkartekideen obligazioa izango da:

- 1) Erakunde Titularraren, ikasleen, irakasleen, gurasoen, administrazio eta zerbitzuetako langileen eta beste Hezkuntza-elkartekideen eskubideak errespetatu eta onartzea.
- 2) Berezko Izaera, Hezkuntza Proiektua, Araudi hau eta Eskolako eta beronen jarduera eta zerbitzuetako arauak errespetatzea, baita irakasleen aginduak eta orientazioak ere.

- 3) Ikastetxearen irudi ona errespetatu eta sustatzea.
- 4) Beraiek partaide diren organoetako bileretan egon eta parte hartzea.

Art. 7.- Bizikidetzarako arauak.

- 1) Ikastetxeko bizikidetzarako arauak sustatu behar diren portaeren ezaugarriak definitzen dituzte, honakoak lortzeko:
 - a) Pertsonaren garapen osoa.
 - b) Ikastetxearen hezkuntza-xedeak, Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua eta Berezko Izaera garatzen dutelarik.
 - c) Hezkuntza-elkartearen garapena.
 - d) Ikastetxeko harreman eta hezkuntza-giro ona.
 - e) Hezkuntza-jardueran parte hartzen duten guztien eskubideekiko begirunea.
- 2) Arau nagusiak. Honako hauek ere Ikastetxeko bizikidetzarako arauak dira:
 - a) Hezkuntza-elkartekideen segurtasun fisiko eta moralarekiko eta beraien ondasunekiko begirunea, bertan egiten ari diren jarduera edo zerbitzuengatik Ikastetxearekin erlazionatzen diren pertsona eta erakundeei ere zor zaiena.
 - b) Aniztasunarekiko tolerantzia, eta ez diskriminatzea.
 - c) Tratuaren egokitasuna, batik bat hezibide oneko hizkeraren bitartez.
 - d) Nork bere lana eta zereginak arduraz egiteko interesa.
 - e) Hezkuntza-elkartekide guztien lan eta zereginekiko begirunea.
 - f) Bizikidetzaren eta hezkuntza-jardueretan parte hartzea.
 - g) Uste ona eta leialtasuna eskola bizitzaren garapenean.
 - h) Garbitasunari eta norberaren irudiari eginiko arreta eta Ikastetxeak arlo honetan dituen arauak betetzea.
 - i) Zentzate eta oharrekiko jarrera positiboa.
 - j) Ikastetxea bera eta beronen altzairuak, lokalak eta materialak dagozkien xedearen eta funtzionamendu arauen arabera erabiltzea. Era berean errespetatu egingo da Ikastetxeko zenbait eremutara sartzeko erreserba.
 - k) Ikastetxeko diziplina, bizikidetzaren eta antolakuntza-arauak errespetatzea.
 - l) Oro har Hezkuntza-elkartekideek eta beronen estamentuek bete egin beharko dituzte indarreko legedian eta honako Araudi honetan agertzen diren betebeharrak.

1. KAPITULUA: **ERAKUNDE TITULARRA**

Art. 8.- Erakunde Titularra.

Kristau Eskoletako Anaiei Institutua da La Salle Ikastetxearen Erakunde Titularra.

Art. 9- Eskubideak.

Erakunde Titularren eskubidea izango da:

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera ezartzea, La Salle Sarearen irizpide orokorren arabera, beronekiko begirunea bermatzea eta beronen eraginkortasuna dinamizatzea.
- 2) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua eratzea, barruan Berezko Izaera duela. Haren onespena Eskola-Kontseiluari proposatuko dio.
- 3) Ikastetxea zuzentzea, beronen ordezkaritza eramatea eta azken batez beronen antolakuntza eta kudeaketaren erantzukizuna hartzea. Erakunde Titularrak izendatuko duen Zuzendaritza-Taldearen bidez beteko du aipatutakoa.
- 4) Ikastetxearen ekonomiaren kudeaketa antolatzea.
- 5) Ikasketa berriak baimentzeko eskaera eta oraingo baimena aldatu eta indargabetzea erabakitzea.
- 6) Hezkuntzarako Eskubidearen Lege Organikoan aipatzen diren hitzarmenak sinatzea erabakitzea eta beroiek aldatu eta indargabetzea sustatzea.
- 7) Eskainiko diren jarduera eta zerbitzuak erabakitzea.
- 8) Barne Araudiaren prestaketa sustatzea eta Eskola-Kontseiluari aurkeztea, onar dezan, eta baita haren garapen eta betearazpena ere.
- 9) Ikastetxeko gobernu eta kudeaketako pertsona bakarreko organoak izendatu eta beroiek kargutik kentzea, Araudi honetan adierazitakoaren arabera.
- 10) Hezkuntza-jarduera koordinatzeko organoak izendatu eta kargutik kentzea, Araudi honetan adierazitakoaren arabera.
- 11) Ikastetxeko langileak hartu, kontratatu eta lanetik kentzea indarreko legediaren arabera.
- 12) Indarreko xedapenen arabera Ikastetxeko ikasleak onartzeko araudia finkatzea eta beroiek onartu eta kanporatzea erabakitzea.
- 13) Une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren araberrako bizikidetzari buruzko neurri zuzentzaileak hartzeko ekimena.

- 14) Eskola-Kontseiluak onartuko dituen bizikidetza-arauak garatzea eta zehaztea.
- 15) La Salle Sarearen orientazio orokorrak gogoan hartzea, partaidea baita.

Art. 10.-Betebeharrak.

Erakunde Titularraren betebeharra izango da:

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera, Hezkuntza Proiektua eta Barne Araudia ezagutzera ematea.
- 2) Ikastetxearen funtzionamendu eta kudeaketaz arduratzea Hezkuntza-Elkartearen, Gizartearen, Elizaren eta Administrazioaren aurrean.
- 3) Ikastetxearen baimenaren, ikasketa antolamenduaren eta hezkuntzako hitzarmenen arau erregulatuak betetzea.

Art. 11.- Ordezkaritza.

Erakunde Titularraren ordezkari ofiziala Kristau Eskoletako Anaien Bilboko Barrutiko Anai Ikuslaria izango da.

Erakunde Titularraren ordezkaritza arrunta Ikastetxeko Zuzendari Orokorrak izango du Araudi honetako 47. artikuluan adierazitako terminoen arabera.

2. KAPITULUA: IKASLEAK

Art. 12.- Eskubideak.

Ikasleen eskubidea izango da:

- 1) Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.
- 2) Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.
- 3) Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.
- 4) Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.
- 5) Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.
- 6) Ikasleek beren osotasun fisikoa eta morala errespetatu diezaieten eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratatu iraingarri edo laidogarria emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.
- 7) Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatu diezaieten.
- 8) Ikasleak ikastetxeetan bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.
- 9) Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritzia askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.
- 10) Ikasleek elkartzeko eta elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute, indarrean dauden legeetan oro har xedatutakoarekin bat.
- 11) Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden arauak jarraiki.
- 12) Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.
- 13) Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemaren sartzeko eta bertan irautea zailtzen dizkieten hezkuntza-premia bereziak badituzte.
- 14) Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuan.
- 15) Ikasle guztiak jakin beharko dituzte eurei eta gainerako kideei indarreko ordenamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideak. Era berean, eskubide horiek errespetatzen eta baliatzen ikasi beharko dute, betiere duten adinak horretarako aukera ematen badie.

Art. 13.- Betebeharrak.

Ikasleen betebeharrak izango dira:

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera eta Hezkuntza-Proiektua ezagutzea eta errespetatzea.
- 2) Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak albai gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea, eta egiten dituzten azterketa eta ariketetan zintzo jokatzeko.

- 3) Ikasle guztiek hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.
- 4) Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentiarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.
- 5) Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetzak hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritzak eta orientazioak errespetatuz.
- 6) Ikasleek hezkuntza-elkarteko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinismenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, inolako diskriminaziorik egin gabe.
- 7) Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-elkarteko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko edo Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere..
- 8) Ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzeko ari diren ikastetxeko irakasle ez diren jarraibideak bete behar dituzte.
- 9) Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz.
- 10) Ikasleek hezkuntza-elkarteko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.
- 11) Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

Art. 14.- Asanbladei eta klasera ez etortzeari buruzkoa.

- 1) Artikulu hau DBHko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. kurtsoetan aplikatuko da.
- 2) Irakasle esku dago asanblada eskatzea gizarte mailako gertakizunen aurreko adierazpen forma bezala, honako funtzionamendu araudiaren arabera:
 - a) Asanblada egin ahal izateko maila bereko gela guztien eskaera behar da eta eskaeren kopurua mailako ikasle %50ekoa gehi bat izatea. Eskaera hau formalizatzeko ikasle ordezkariek eskatu eta Etapako Arduradunak emango dizkien "ad hoc" orriak erabiliko dira eta beraietan asanbladaren arrazoia adieraziko da.
 - b) Eskaera hau Etapako Arduradunari emango zaio eta honek Zuzendaritza-Taldearen eskuetan jarriko du, berau izanik asanbladarako baimena ematen duena.
 - c) Asanblada gelara egingo da hurrengo eguneko lehenengo ikastorduan.
 - d) Momentuan gelan dagoen irakasleak bermatuko du asanbladaren garapen egokia. Gelako Ordezkaria izango da asanbladaren moderatzailea.
 - e) Bozketarako proposamenik balego, berau isilpekoa izango da. Proposamen bat onartua izateko mailako gehiengo absolutua lortu behar du.
 - f) Bozketaren akta idatzia egingo da eta, behin Ordezkariek izenpetuta, Koordinatzaileari emango zaio. Hau da bertan adierazi beharrekoa:
 - asanbladarako tokia eta hasiera eta bukaerako ordua.
 - gelako ikasle kopurua, bileran egon direnena, proposamena, baiezko botoak, ezezkoak eta zuriak.
 - g) Etapako Arduradunak mailako asanbladen aktak jasoko ditu, zenbatze orokorra egingo du eta emaitza bere mailako gelei jakinaraziko die.
- 3) Klasera ez etortzea, giza mailako gertakizunen aurreko adierazpen forma bezala:
 - a) Asanbladan posible da bozkatzea, eta hala gertatuko balitz, klasera ez etortzea onestea.
 - b) Erabakiak mailara hartzen dira.
 - c) Asanbladan hartutako erabakiaren eta klasera ez etortzearen artean gutxienez bi laneguneko tartea egingo da.
 - d) Klasera ez etortzeko, ikaslearen gurasoek edo bere legezko ordezkariek erabakiaren jakinean egon behar dute. Klasera ez etortze honek diziplina aldetik eraginik izan ez dezan, familiaren edo legezko tutoreen "adituarena" ekarri behar du ikasleak asanbladaren hurrengo eguneko lehen orduan. Hala bada, noten buletinean absentsia bezala azalduko da, beste zehaztapenik gabe.
 - e) Ikastetxeak bermatu egingo du klasera etortzea erabakitzen duenaren eskubidea, bertan, dagokion irakaslearen behar bezalako arreta izan dezan, gaiari dagozkionetan jarduten duelarik.
 - f) Ikasleek artikulu honetan onartzen den eskubidean jarduteak ez du suposatzen irakasleek klasera ez etortzeak eragin duen programaren zatia berriz azaldu behar dutenik, ez eta egin daitezkeen azterketak berregin beharrean daudenik ere. Irizpide hau berdin aplika dakieke asanblada garaiei.

Art. 15 Onartzea.

- 1) Ikasleak onartzea ikastetxeko Erakunde Titularren ardura da.
- 2) Eskatzen duten guztientzako haina tokirik ez balego, Eusko Jauriaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzak ezarritako araudia jarraituko da.

3. KAPITULUA: IRAKASLEAK

Art. 16.- Eskubideak.

Irakaskuntza Pribatuaren Lan-Hitzarmenean adierazten direnez gain, irakasleen eskubideak izango dira:

- 1) Beren hezkuntza-eginkizuna askatasunez burutzea, duten lanpostuaren ezaugarrien arabera.
- 2) Beren kontzientzia askatasunean errespetatuak izatea, beren uste erlijioso eta moraletan bezalaxe.
- 3) Berariaz konfidentzialak diren ikastetxeak dituen datu pertsonalen tratamenduaren intimitatea gordetzea eta errespetatzea, beti indarrean dagoen legediaren arabera.
- 4) Etengabeko prestakuntzan jarraitzea.
- 5) Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren, Urteko Egitasmoaren eta etapako eta gelako prestakuntzan parte hartzea.
- 6) Metodologia Etapako Curriculum Proiektuaren arabera garatzea eta dagokion Departamentuaren lankidetzan.
- 7) Ebaluazio lana askatasunez burutzea, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan eta dagokion Departamentuan ezarritako irizpideen arabera.
- 8) Ikastetxeko bitarteko materialak eta instalazioak hezkuntza-helburuetarako erabiltzea, erabilerarako arau erregulatuzaileen arabera.
- 9) Dagozkion erabaki pedagogikoetan parte hartzea, bai Klaustruetan, bai hezkuntza-koordinaziorako organoetan, bai maila berean ematen duten irakasle-taldeetan.

Art. 17.- Betebeharrak.

Irakaskuntza Pribatuaren Lan-Hitzarmenean adierazten direnez gain, irakasleen betebeharrak izango dira:

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera eta Hezkuntza-Proiektua ezagutu eta errespetatzea.
 - 2) Eginkizunak beren kontratu edo/eta izendapenean hitzartutako baldintzen arabera burutzea.
- Honakoak dira bere eginkizunak:
- a) Ikastetxeko jarduerak begirune, tolerantzia, partaidetza eta askatasun-giroan betetzen laguntzea ikasleengan gizarte demokratikoaren berariazko balioak sustatzeko.
 - b) Irakasleen tutore izatea, beraien gurasoei batera haien ikasketa-prozesuan laguntzeko, balioak erakusteko eta azalduko zaizkien zailtasunak gainditzeko.
 - c) Bizikidetzaren aurkako edota hutsegite desegokiak zuzentzea.
 - d) Irakasleen orientazio pertsonala, akademiko eta profesionalen laguntzea Orientazio Departamentukoekin batera.
 - e) Hezkuntza-jardueren koordinazioa.
 - f) Ikastetxeko jarduera orokorrean parte hartzea.
 - g) Ikaskuntza-Irakaskuntza prozesuaren ikerketa, esperimendazioa eta etengabeko hobekuntzan parte hartzea.
 - h) Irakaslearen hezkuntza integrala: ikaslearen garapen kognitiboa, afektiboa, psikomotorra, espirituala, soziala eta morala.
 - i) Aldian aldiro eta garaiz gurasoei beren seme-alaben ikasketari buruzko informazioa helaraztea.
 - j) Ikastetxeak eta Hezkuntza-Administrazioak erabakitzen dituen ebaluazio-asmoetan eta ikastetxeko kudeaketa-prozesuetan parte hartzea.
- 3) Irakasleekin, beste irakasleekin eta beste Hezkuntza-Elkartekideekin harreman egokiak edukitzea.
 - 4) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuko helburuak bete daitezen lan egitea eta, beren eginkizunak burutzerakoan, Curriculum Proiektuan ezarritako irizpideak jarraitzea.
 - 5) Irakasten duen arlo edo gaiaren programazio bereziaren prestakuntzan parte hartzea, ikasturteko Irakaskuntza Taldearen eta dagokion Departamentuaren baitan.
 - 6) Gelako programazioa egitea, eta baita dagozkion Unitate Didaktikoak eta curriculum-egokitzapenak.
 - 7) Hezkuntza-jardueraren alderdi desberdinen ebaluazioan parte hartzea.
 - 8) Irakaslea bere osotasunean hezten eta oinarriko gaitasunak lortzen saiatu metodologia egokia erabiliz.
 - 9) Ordena eta diziplina gordetzeko lan egitea beren eginkizunen jardueraren barruan.
 - 10) Eskola egutegia eta ordutegia puntualki betetzea.
 - 11) Profesionalki hobetzeko ahalegina egitea.
 - 12) Sekretu profesionala gordetzea.

Art. 18.- Onartzea.

- 1) Ikastetxeko Erakunde Titularraren ardura da irakasleen bete gabeko postuak betetzea eta berari dagokio irakasle berrien Curriculumaren eta hartutako erabakien berri Eskola Kontseiluari ematea.
- 2) Aurreko zenbakian adierazitakoaren kalterik gabe, hutsik dagoen lanpostua kontratazio berriko pertsonalarekin betetzeko, Erakunde Titularrak deialdi publikoa egingo du eta aldi berean Eskola Kontseiluari biltzeko deialdia egingo dio. Honek hamar egun naturaleko epean bildu beharko du, adostasunez, hautagaiak aukeratzeko irizpideak finkatzeko. Nolanahi ere, irizpide horiek merezimenduan, gaitasun profetionalean eta Ikastetxearen eta lanpostuaren ezaugarriekiko egokitzean oinarrituko dira. Irizpide orokorrak ezarri ahal izango dira hutsik dauden lanpostu guztietarako. Noski, La Salle Sarearen irizpideak gogoan hartuko dira beti.
- 3) Ikastetxearen Entitate Titularra, Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldearekin batera, izango da irakasleen hautaketa-prozesuaren jabea.
- 4) Hautaketa prozesuak dirauen bitartean, Erakunde Titularrak behin behinekoz bete ahal izango du hutsik dagoen lanpostua.

4. KAPITULUA: GURASOAK

Art. 19.- Eskubideak.

Guraso edo Tutore Legalen eskubidea da:

- 1) Ikastetxean Hezkuntza-Proiektuak finkatutako hezkuntza mota eman dezatela.
- 2) Ikastetxean beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren garapenarekin zerikusirik duten gaietan esku hartzea.
- 3) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuari buruzko informazioa jasotzea.
- 4) Beren seme-alaben hezkuntzari eta orientazio akademiko eta profesionali buruzko erabakietan entzunak izateko eskubidea.
- 5) Ezarritako ordutegietan ikastetxeko irakasleek hartuak izatea.
- 6) Ikastetxearen antolakuntza, funtzionamendu, gobernu eta ebaluazioan parte hartzea indarrean dauden legeen arabera.
- 7) Berariaz konfidentzialak diren ikastetxeak dituen datu pertsonalen tratamenduaren intimitatea gordetzea eta errespetatzea, beti indarrean dagoen legediaren arabera.

Art. 20.- Betebeharrak.

Gurasoen betebeharrak izango dira:

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera eta Hezkuntza-Proiektua ezagutu eta errespetatzea.
- 2) Familiaren eta Ikastetxearen arteko lankidetzara behar bezalako izan dadin ahalegintzea. Horretarako:
 - a) Beren seme-alaben heziketarekin zerikusirik duten gaiak aztertzeko Zuzendariak, Etapak Arduradunak, Koordinatzaileak edo Tutoreak deituriko elkarrizketa eta bileretara agertzea.
 - b) Ikastetxetik kanpo, bertako heziketa lana eraginkorragoa egin dezaketene goerak sustatzea.
 - c) Hezitzaileei eskola alorreko prestakuntza eta integrazioarako garrantzizkoak diren beren seme-alaben nortasun eta ezaugarriei buruzko alderdien informazioa emango diete.
 - d) Ikastetxean beren seme-alabei agintzen zaizkien ikaslanak betetzera sustatuko dituzte eta ikastetxetik kanpoko jarduerak eta baldintzak bideratuko beraien seme-alaben hezkuntza eraginkorragoa izan dadin.
- 3) Ikastetxearekin duten kontratuzko harremanetik sortzen diren betebeharrei aurre egitea.
- 4) Ikastetxeko pertsonalaren eskumen tekniko-profesionalen erabilera errespetatzea.
- 5) Beren seme-alabek asistentzian edo puntualtasunean egindako hutsuneak idatziz justifikatzea.
- 6) Ikastetxearen antolakuntza eta bizikidetzara-arauek errespetatzea dagozkien alderdietan .

5. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA

Art. 21.- Eskubideak.

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren eskubidea izango da:

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera eta Hezkuntza-Proiektua ezagutzea eta errespetatzea.
- 2) Hezkuntza-elkartekide gisa integratzea.
- 3) Ikastetxearen helburu eta antolamendu orokorrari buruzko informazioa jasotzea eta beroien prestakuntzan esku hartzea, beraiengan eraginik duten alderdietan.
- 4) Etengabeko prestakuntzarekin jarraitzea.
- 5) Berariaz konfidentzialak diren ikastetxeak dituen datu pertsonalen tratamenduaren intimitatea gordetzea eta errespetatzea, beti indarrean dagoen legediaren arabera.

Art. 22.- Betebeharrak.

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren eskubidea izango da:

- 1) Beren eginkizunak kontratuan eta/edo izendapenean hitzartutako baldintzetan burutzea.
- 2) Profesionalki hobetzen saiatzea.

Art. 23.- Onartzea.

Ikastetxeko Erakunde Titularrak izendatuko du eta kargutik kenduko Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonala.

6. KAPITULUA: **BESTE HAINBAT KIDE**

Art. 24.- Beste hainbat kide.

Ikastetxeko Erakunde Titularrak erabakitzen dituen programen arabera, Ikastetxearen hezkuntza lanean jarduten duten beste batzuk: kolaboratzaileak, ikasle ohiak, boluntarioak. Hezkuntza-elkartekide izan daitezke.

Art. 25.- Eskubideak.

Hezkuntza-elkartekide hauen eskubidea izango da:

- 1) Eskola eremuan lankide edo boluntarioak direla publikoki adieraztea.
- 2) Beren eginkizunak Erakunde Titularra eta dagokien legediaren arabera burutzea.

Art. 26.- Betebeharrak.

Hezkuntza-elkartekide hauen betebeharra izango da:

- 1) Beren eginkizuna Araudi honetako 24. artikuluan aipatzen diren programetan ezarritako baldintzen arabera garatzea.
- 2) Ikastetxeko jardueraren garapenean esku hartzea eta ez eragozte.

7. KAPITULUA: **PARTEHARTZEA**

Art. 27.- Ezaugarriak.

Ikastetxean parte hartzea ezinbestekoa da. Honakoagatik bereizten da:

- 1) Ikastetxeko funtzionamenduaren oinarrizko baldintza eta Berezko Izaeraren eta Hezkuntza Proiektuaren benetako ezarpenaren baliabide izateagatik .
- 2) Ikastetxeko funtzionamenduaren oinarrizko baldintza eta Berezko Izaeraren eta Hezkuntza Proiektuaren benetako ezarpenaren baliabide izateagatik.
- 3) Plan Estrategikoan azaltzen diren ildo eta helburuak lortzeko bide egokia.
- 4) Ekarpene berezia, Hezkuntza-elkartekide desberdinek egitasmo komunerako eginiko ekarpenaren arabera.

Art. 28.- Eremuak.

Ikastetxean parte hartzeko eremuak honakoak dira:

- 1) Pertsonala.
- 2) Organo kolegiatuak.
- 3) Elkarateak.
- 4) Ordezkarriak.

Art. 29.- Eremu pertsonala.

Hezkuntza-elkartekide orok bere ekarpen bereziarekin hartuko du parte Ikastetxearen helburuak lortzeko lanean.

Art. 30.- Organo kolegiatuak.

- 1) Hezkuntza-elkartekideek Ikastetxearen organo kolegiatuetan hartuko dute parte Araudi honetako Hirugarren eta Laugarren Atalburuetan adierazitakoaren arabera.
- 2) Erakunde Titularrak Kontseiluak eratu ahal izango ditu komenigarri iruditzen zaizkion hezkuntza-elkartekideez osatutako taldeak parte hartu ahal izateko erabakitzen diren alorretan.

Art. 31.- Elkarateak.

- 1) Hezkuntza-Elkarteko estamentu desberdinek indarreko legediaren arabera Elkarateak eratu ahal izango dituzte honako helburuok lortzeko:
 - a) Estamentu horietako kideen eskubideak sustatzea.

- b) Beren betebeharrak betetzean parte hartzea.
 - c) Berezko Izaeran, Hezkuntza-Proiektuan eta Plan Estrategikoan idatzita dauden Ikastetxearen helburuak lortzen laguntzea.
 - i. Ikastetxeko Gurasoen Elkartea eratzen da (IGE) ikasleen aita, ama eta tutore legalez osatua.
 - ii. Hauexek dira bere xedeak:
 - 1. Ikasleen guraso edo tutore legalei laguntzea seme-alaben heziketari dagokion guztian.
 - 2. Ikastetxearen eskolaz kanpoko hezkuntza-jardueran esku hartzea.
 - 3. Ikastetxeko gurasoen partaidetza sustatzea.
 - 4. Gurasoen ordezkaritza erraztea Eskola-Kontseiluan.
 - 5. Indarren dagoen legeek eta Familia eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak onartutako gurasoen eskubideak sustatzea.
 - 6. Euskara eta euskal kultura aldeko jarduerak sustatzea.
 - 7. Bai gurasoentzat, bai Ikastetxeko beste hezkuntza-elkartekideentzat kirol, aisialdi kultura eta hezkuntza-jarduerak antolatzea.
 - 8. Xede bereko zenbait erakunderekin eta tokian tokiko Elizarekin harremanak estutu eta esku hartzea.
 - 9. Gurasoak ordezkatzeko beraien eskubide eta askatasun alde.
 - 10. Hezkuntza-Elkarte guztiarekin lan egitea poliki-poliki Elkarte kristauagoa izan dadin.
 - iii. Bere gobernu eta administrazioa Gurasoen Batzar Orokorraren, elkartekideen organo gorena gisa, eta Gurasoen Zuzendaritza-Batzordearen, ohiko organo gisa, menpean izango dira.
- 2) Elkarteen eskubidea izango da:
- a) Beren helbide soziala Ikastetxean ezartzea.
 - b) Ikastetxearen hezkuntza-jardueretan parte hartzea Ikastetxeko Urteko Egitasmoan ezartzen denaren arabera.
 - c) Eskola alorreko gaiak aztertzeke Ikastetxean bilerak egitea eta bere jarduera Erakunde Titularraren baimenarekin burutzea. Bilera edo jarduera horiek Ikastetxeko ohiko lanaren garapena oztopatzen ez badute emango da baimen hori eta, hala behar izanez gero, bidezkoa litzatekeen konpentsazio ekonomikoaren kalterik gabe.
 - d) Hezkuntza-Elkarteko Kontseilurako bere estamentuko hautagaiak proposatzea, Araudi honetako Hirugarren Atalburuan ezarritako modura.
 - e) Ikastetxeko organoei Elkartei eragiten dieten gaien buruzko informazioa eskatzea.
 - f) Iradokizunak, eskaerak eta kexuak idatziz aurkeztea kasu bakoitzean dagokion organoaren aurrean.
 - g) Bere eskubideak zapaltzen direnean, eskuduntza duen organoaren aurrean erreklamatzeko.
 - h) Legeetan, Ikastetxearen Berezko Izaeran eta Araudi honetan onartutako beste eskubideak erabiltzeko.
- 3) Elkarteak Araudi honetako 6 eta 7 artikuluetan adierazitako betebeharrak, arauak eta estamentu horren betebeharrak propioak betetzera behartuta egongo dira.

Art. 32.- Ikasleen ordezkariak.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek gelako ordezkariak aukeratu ahal izango dituzte ondoren adierazten diren prozedura eta zereginen arabera:

- 1) Ikasleen Ordezkarien zereginak izango dira:
 - a) Ikasleak Ikastetxeko zuzendaritza organoen aurrean ordezkatzeko.
 - b) Gelan eraginik duten arazoak ezagutzeko, soluziobideak aurkitzen laguntzeko.
 - c) Irakasleei lagundu ikasketan, animazioan eta bizikidetzan gelako giroa ona izan dadin.
 - d) Ikastetxeko zuzendaritza organoei ikasleengan eraginik duten bizikidetzako eta ikasketa arloei buruzko informazioa eskatzea.
 - e) Taldeak dituen arazoak azaldu dagozkien pertsona eta erakundeei.
 - f) Ekimenak proposatzea eta Ikastetxeko jardueren programazioan eta beroien betetzean esku hartzea.
- 2) Ikasleen Ordezkariak gutxienez hiruhileko behin bilduko dira dagokien Etapako Arduradunarekin edo Zuzendariarekin.
- 3) Gelako Ordezkariak bere ikaskide guztiak ordezkatzeko dituzte eta taldearen arazoak adierazten dizkie hortaz arduratzen diren pertsona eta erakundeei. Ordezkariordeak Ordezkariaren zereginak betetzen ditu beronen absentsian.
- 4) Gelako ikasle guztiak isilpeko bozketa baten bitartez hautatzen dituzte Ordezkaria eta Ordezkariordea. Gelako tutorea izango da hauteskunderen buru eta berak egiaztatuko ditu.
- 5) Ordezkari kargua galtzen da:
 - a) Karguaren iraupen epea bukatzen denean.
 - b) Ordezkariak hala nahi izanda, eskakizunaren arrazoiak behin adierazita.
 - c) Gelari kontsulta egin eta Tutoreak hala proposatuta, Zuzendariaren eta Zuzendaritza taldearen erabakiaren ondorio bezala, ez dituela bere eginkizunak betetzen kontsideratu dutelako.



Art. 33.- Printzipioak.

- 1) Ikastetxearen hezkuntza-jarduera Berezko Izaeraren, aplikagarri den legediaren, bere eragile eta hartzaileen ezaugarrien, Ikastetxearen bitartekoen, berau dagoen kokagunearen inguruan eta Etengabeko Hobekuntzaren oinarrietan gauzatuko da.
- 2) Hezkuntza-elkartekideak dira Ikastetxearen hezkuntza-jardueraren protagonistak, nor bere ekarpen bereziaren arabera.
- 3) Ikastetxearen hezkuntza-jardueran sartzen dira eta elkarren arteko harremanean daude Ikastetxearen Berezko Izaeraren helburuak lortzera zuzendutako hainbat arlo: akademikoa, prestakuntzarena, tutoretza, pastoral, erlijiosoa eta abar.

1. KAPITULUA: PLANIFIKAZIO, ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA-AGIRIAK

Art. 34.- Berezko Izaera.

- 1) Erakunde Titularrak Ikastetxearen Berezko Izaera eratzeke eta aldatzeko eskubidea du.
- 2) Ikastetxearen Berezko Izaerak honakoak zehazten ditu:
 - a) Ikastetxearen izaera, ezaugarriak eta funtsezko helburuak, hau da, bere izatearen arrazoia.
 - b) Hezi nahi den pertsona estiloa.
 - c) Ikastetxean bultzatzen diren balio, jarrera eta portaerak.
 - d) Ikastetxearen oinarriko irizpide pedagogikoak.
 - e) Ikastetxearen antolamenduaren oinarriko elementuak eta horiek Hezkuntza-Elkartearen inguruan gauzatzea.
 - f) La Salle Sarearen oinarriko orientabideak.

Art. 35.- Misio, Jomuga eta Balioak.

- 1) Ikastetxearen Berezko Izaera azaltzen du era labur batean: Ikastetxea identifikatu eta zentzua ematen diona (MISIOA), izan nahi duena (JOMUGA), eta horixe lortzeko baliatuko den balioak (BALIOAK).
- 2) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldeak idazten du Ikastetxearen Misioa, Jomuga eta Balioak izeneko agiria eta bere behin-betiko izaera lortzen du Ikastetxeko pertsonalaren gehiengoak onesten duenean, aldez aurretik Erakunde Titularrak onartu ondoren.

Art. 36.- Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP).

- 1) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuak lehentasunez hartzen ditu Ikastetxearen Berezko Izaeraren helburuak aldi jakin baterako, ondorengoan azterketaren arabera garrantzi gehiena duten eskaerei erantzunez:
 - a) Hezkuntza-elkartekideen ezaugarriak.
 - b) Ikastetxea kokatua dagoen ingurune hurbila.
 - c) Errealitate sozial, tokiko, autonomiko, estatal eta nazioartekoa.
 - d) Elizaren lehentasun pastoralak.
- 2) Hezkuntza-Proiektua, bere barnean Hezkuntza-Administrazioak ezarritako curriculumak dituela, Eskola-Kontseiluak onesten du Ikastetxeko Erakunde Titularraren proposamenez. Hezkuntza-elkartekide guztiek, bertako Elkarteek eta Ikastetxeko gobernu, kudeaketa eta koordinazio organoek hartzen dute parte, Zuzendaritza-taldeak proposatutako prozedurari jarraituz. Zuzendari Orokorrek zuzentzen du horren prestakuntza, burutzapena eta ebaluazioa.
- 3) Hezkuntza-Proiektuaren lorpen-maila izango da Ikastetxeak eskaintzen duen kalitate-mailaren adierazlea.

Art. 37.- Ikastetxearen Curriculum-Proiektua (ICP).

- 1) Etapa desberdinetako Curriculum-proiektuek osatzen dute Ikastetxearen Curriculum-proiektua: Haur Hezkuntzakoa, Lehen Hezkuntzakoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa eta Batxilergokoa.
- 2) Ikastetxearen Curriculum-proiektuak urratsean garatu beharreko helburuak egokitzen ditu, Ikastetxeko hezkuntza-jardueraren ikuspegi desberdinak bertaratuz, bere Hezkuntza-Proiektuaren arabera.

- 3) Etapako Curriculum-proiektuaren barne, honakoak sartuko dira gutxienez:
 - a) Etapako helburuen zehaztapena, arloak eta mailak.
 - b) Edukien sekuentziakzioa, ziklo eta/edo mailaka.
 - c) Metodologia pedagogikoa.
 - d) Ebaluazio eta promoziorako irizpideak.
 - e) Aniztasunari aurre egiteko neurriak.
 - f) Arlo edo gai bakoitza ikastetxean ematen diren gainerako irakaskuntzekin koordinatzeko neurriak.
 - g) Tutoretzen antolamendu eta funtzionamenduaren oinarriak, urratsez urrats.
- 4) Urrats bakoitzeko irakasleek egiten eta onesten dute Etapako Curriculum Proiektua, Zuzendaritza Taldeak erabakitzen duen prozeduraren arabera. Etapako Arduradunak, Koordinatzaileak edota ordezkatzeko dutenek zuzentzen dute horren prestakuntza, burutzea eta ebaluazioa.

Art. 38- Ikastetxearen Hizkuntza-Proiektua (HP).

- 1) Ikastetxeak hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerarekin zerikusia duten alderdi guztien planifikazioa, gero bakoitzak gero norberaren esparuan aurrera eramateko asmoz egina. Hizkuntza-Proiektuak Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan erabiliko diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerako irizpideak garatuko ditu eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan hizkuntzei emango dien trataera zehaztuko.
- 2) Hizkuntza-Proiektua Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren atal bat da.

Art. 39- Ikastetxearen Bizikidetzeta-Plana (BP).

Ikastetxeak egiten duen plan honetan hezkuntza-elkartekideen arteko bizikidetzaren lagungarri izan daitezkeen neurri, arau eta ekimenak proposatzen ditu, besteak beste Araudi honetan bertan arautzen diren bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak eta gizaseme eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen dutenak.

Art.40- Plan Estrategikoa (PE).

- 1) Ikastetxeak epe ertain batean bere Hezkuntza-Proiektuari burutzeko hautematen dituen erantzunei erantzuteko egiten duen egitasmoa da helburu estrategikoa eran bere lehentasunak ezarritik. Plan honen barruan azaltzen dira Ikastetxearen Misioa, Jomuga eta Balioak lortzeko jorratu beharko dituen lldo estrategikoa.
- 2) Plan Estrategikoa eraketa Ikastetxeko Zuzendariaren erantzukizuna da, bere Zuzendaritza-Taldearen laguntzarekin, eta hiruzpalau urteko indarraldia izango du.
- 3) Ikastetxearen Plan Estrategikoa La Salle Sareak bere Misioaren Asanbladan sortutako epe horretako helburu estrategikoa hartu beharko ditu kontuan eta dagozkionak bete.

Art. 41- Urteko Egitasmoa (UE).

- 1) Plan Estrategikoa dagokion urtean lortu beharreko zehaztapena da. Plan estrategikoa, kudeaketa-prozesuen ebaluazioan, Klaustroek egindako ebaluazioetan eta esparru batzuetan eginiko hobekuntza-arloetan oinarrituta dago. Nolanahi ere, ondoko hau hartuko du kontuan:
 - a) Plan Estrategikoko helburu estrategikoa lortzeko urte horri dagozkion helburu partzialak, eta ikasturtean zehar beraiek lortzeko baliabide eta jarduerak.
 - b) Kudeaketa-prozesuetan hautemandako ebaluazio eta hobekuntza-arloak, batik bat, prozesu eraginkorrenak (ikaskuntza-irakaskuntza, pastoral, hizkuntza-plana, bizikidetzeta-plana, jarduereta-plana, zuzendaritza ...).
 - c) Irakasleriaren etengabeko prestakuntza-plana.
 - d) Urteko jarduereta osagarri eta eskolaz kanpoko jarduerak.
- 2) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldearen erantzukizuna da plan hau burutzea prozesuen jabeen laguntzaz.

Art. 42- Urteko Antolakuntza (UA).

- 1) Ikasturteko antolakuntza planifikatzen du:
 - a) Maila bakoitzeko irakasgai irakasleak esleituz.
 - b) Ikasleak taldeei esleituz mailak, modalitateak eta ibilbideak gogoan hartuz (hizkuntza-ereduak, hautazkoak eta abar).
 - c) Beharko dituzten lekuak eta gelak eta beraien prestaketa.
 - d) Ardurak esleituz (tutoretzak, koordinatzaileak, programa eta departamentu buruak).
 - e) Urteko lan eta ikasketa-egutegiak eginez (jarduerak, bilerak, ebaluazioak ...).
 - f) Irakasle eta ikasleen ordutegiak eginez.
- 2) Indarean dauden legee (hezkuntza, administratiboak, lan-hitzarmena) egokitzu eta ahalik eta erarik eraginkorrenean hezkuntza-helburuak lortuz, hezkuntza-elkartekide guztien laguntzaz eta beraietan inplikaturik dauden pertsona guztien hezkuntza-kalitatea eta gogobetetasuna lortzen saiatuz.
- 3) Urteko Antolakuntzaren planifikazioa Zuzendaritzaren Batzorde Iraunkorrari dagokio. Planifikazioaz gain, ikasturte horretan burutzeaz, ebaluatzeaz eta doitzeaz arduratuko da.

2. KAPITULUA: GELAKO JARDUERA

Art. 43.- Gelako programazioa.

- 1) Irakasleek gelako programazioa Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren arabera egingo dute eta etapako, zikloko, mailako eta Departamentuko beste irakasleekin koordinatuz.
- 2) Lerro pedagogiko bera mantentzen eta beraien metodologia koordinatzen saiatuko dira koherentzia handiena lortu nahian honakootan:
 - a) Unitate Didaktikoak egiterakoan.
 - b) Lortu beharreko helburu didaktikoetan.
 - c) Ebaluazio-irizpideetan.
 - d) Aniztasuna lantzerakoan.
 - e) Maila, ziklo eta etapen arteko koordinazioan.

Art. 44.- Ikastetxeko hezkuntza-jardueraren ebaluazioa.

- 1) Hezkuntza-jardueraren ebaluazioa da Ikastetxearen helburuak bete direla zehazteko bitartekoa eta helburu horien hobekuntzarako egoki daitezkeen zuzenketak hartzeko oinarria.
- 2) Hezkuntza-jardueraren ebaluazioak Ikastetxearen jardueraren arlo guztiak hartzen ditu. Urteko Egitasmoan esaten da jardueraren EFQM kalitatezko ereduaren arabera kudeatuko dela. Aipaturako jardueraren prozesuak burutuko da bakoitzari dagokion PDCA aplikatuz, P(Planifikazioa), D(Betetzea), C(Kontrola) eta A(Doiketak), azken hau, gehienetan ikasturtearen bukaeran. Prozesu bakoitzaren ebaluazioa burutzeko beraietan planifikatutako adierazleak bilduko dira: adierazle zuzenak, gogobetetasun-inkesten emaitzak (gurasoei, ikasleei, pertsonalari, jarduerena), eta adierazle ez-zuzenak – emaitzak -. Ikasturtearen bukaeran bilduko dira dagozkien hobekuntza-arloak. Prozesuen jabeak eta Kalitate-Taldekoak dira horien erantzuleak.
- 3) Horretaz gain, etapetako Klaustrorik hiru hilero behin ebaluatu eta doituko dute Urteko Egitasmoko helburuak. Ikasturtearen amaieran sailletako zuzendariek etapak arduradunekin batera bilduko dituzte sortutako hobekuntza-arloak.
- 4) Irakasleen jardueraren ebaluazioa bi urtero behin aplikatuko da eta bertan hurrengo urteetarako lortu beharreko helburu eta hobekuntza-arloak bilduko dira ikasleek irakasle horren jardueraz emandako balorazioaz gain. Nolanahi ere, Saileko Zuzendariak bakoitza elkarriketatuko du beraien jardueraren eta egoera hobetzeko asmoz.
- 5) Irakasleen ebaluazioa Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren arabera egingo da eta jarraitua izango da etapa guztietan eta integrala izateagatik alderdi akademikoz gain irakasleen jokabide eta jarrerazko alderdi guztiak bilduko ditu. Beraien irakasleak tutorearekin batera izango dira horren erantzuleak Etapak Arduradunaren zuzendaritzapean.
- 6) Hezkuntza-jardueraren ebaluazioan Hezkuntza-Elkarte osoak hartuko du parte Araudi honen I. Atalburuan esaten den bezala. Zuzendari Orokorrek zuzenduko du horren lanketa eta burutzapena.

Art.45.- Irakasleen ebaluazioa.

- 1) Beraiek hala nahi izanez gero, irakasleek eta beren gurasoek edo legezko ordezkoez posible dute egiten ari diren Etapak Curriculum proiektua ezagutzera. Etapa bakoitzaren hasieran jakitera emango zaizkie Etapak helburu orokorrak.
- 2) Ebaluazio bakoitzaren hasieran, irakasleek eta beren gurasoek edo legezko ordezkoez ezagutu egingo dituzte etapa edo arloan ebaluazio positiboa izateko gaitasun behar diren helburu didaktikoak eta gutxienezko edukiak, horiek izanik ebaluazio irizpideak. Era berean emango zaie promoziorako irizpideen berri: arlo eta arloetako konstanteak eta Ikastetxe/Etapako konstanteak.
- 3) Ebaluazio saio bakoitzaren ondoren, gurasoek edo irakasleen legezko ordezkoez saioan onartutakoaren informazioa izango dute:
 - a) Haur Hezkuntzan idatzizko bi txosten izango dira eta ikasturte erdian eginiko elkarriketa.
 - b) Lehen Hezkuntzan idatzizko hiru txosten izango dira, hiru hilero amaiera oro bat.
 - c) Bigarren Hezkuntzan hiru izango dira idatzizko txostenak ikasturtearen zehar banatuko direnak, eta beraien berreskurapenak, hala behar izanez gero.
- 4) Lanak, azterketak eta ariketak berrikustea Bigarren Hezkuntzako mailetan:
 - a) Irakasleek eta, hala behar balitz, gurasoek edo legezko ordezkoez ikusi ahal izango dituzte errendimenduaren ebaluazioan eraginik izango duten lanak, azterketak eta ariketak, behin zuzenduak izan direnean. Beraiek aztertu ondoren 48 orduko epea izango dute irakasleari lanen, azterketen eta ariketen zuzenketari eta kalifikazioari buruzko erreklamazioak egiteko, hala nahi izanez gero.
 - b) Irakaslearen erabakiarekin bat ez badatoz:
 - tarteko ebaluazioa bada, erreklamazioa Tutoreari egin diezaiokete eta honek arlo eta arloko Departamentuari aurkeztuko dio. Departamentuaren erabakia apelazina izango da.
 - maila, Ziklo edo Etapa amaierako azken ebaluazioa bada, erreklamazioa idatzita aurkeztu beharko zaio Ikastetxeko Zuzendari Orokorri. Honek Departamentuaren eskuetan utziko du. Departamentuak arbuia egingo du ala kalifikazio berria proposatuko du.

- Ikastetxean egindako erreklamazioak behin erabakita gelditu direnean, ikasleek nahiz irakasleek, bat ez datozenean, erreklamazioa idatziz egiteko aukera izango dute Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzaren aurrean, zazpi egun naturalen buruan.
- c) Erreklamazio kasu guztietan Departamentuak bere momentuan irakasleak publikoki jakinarazi zituen helburuen, gutxieneko edukien eta kalifikazio irizpideen arabera jokatu du. Ez da zilegi konparaketa modura beste ikasle baten lan, azterketa edo ariketara jotzea.
- d) Azterketak, lanak eta ariketak ikustea ikasturteko edozein momentutan posible izan dadin, irakasleek urte osoan zehar gorde beharko dituzte Ikastetxean eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioaren ondorengo erreklamaziorako epea bukatu eta hiru hilabete iragan diren arte.



III. ATALBURUA:

KUDEAKETA ETA GOBERNU-ORGANOAK

Art. 46.- Kudeaketa eta Gobernu-Organok.

- 1) Ikastetxeko gobernu eta kudeaketa organok pertsona bakarrekoak edo kolegiatuak izan daitezke.
- 2) Gobernu eta kudeaketako pertsona bakarreko organo dira: Ikastetxeko Zuzendari Orokorra, Haur eta Lehen Hezkuntzako Zuzendaria, Derrigorrezko eta Ez derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Zuzendaria, Etapako Arduradunak, Kalitate-Arduraduna, Ziklo edo Etapako Koordinatzailea, Elebitasuneko Koordinatzailea, Ikastetxeko Idazkaria eta Administrazioa. Pertsona berak posible izango du zenbait pertsona bakarreko kargu izatea.
- 3) Kudeaketa eta Gobernu-Organok kolegiatu dira: Eskola-Kontseilua, Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldea, Batzorde Iraunkorra, sail bakoitzeko Irakasleen Klustroak, Ikastetxe osoko Klustroa, Pastoral-Taldea eta Kalitate-Taldea.
- 4) Gobernu eta kudeaketa-organok Berezko Izaeraren eta Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren helburuak sustatuz garatuko dituzte beren eginkizunak, eta indarreko legediaren arabera.

1. KAPITULUA: PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

1.1 IKASTETXEKO ZUZENDARI OROKORRA ETA SAILETAKO ZUZENDARIAK

Art. 47.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxeko Zuzendari Orokorraren eskumena izango da:
 - a) Ikastetxeko Erakunde Titularren ordezkaritza arrunta bere gain hartzea, horrek ematen dizkion ahalmenekin.
 - b) Ikastetxeko Eskola Kontseilurako deialdia egitea eta mahaiburu izatea.
 - c) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldeko eta bere Batzorde Iraunkorreko bileren deialdia egitea eta mahaiburu izatea.
 - d) Erakunde Titularri, izenda ditzan, Ikastetxeko pertsona bakarreko organok proposatzea.
 - e) Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren buruzagi gisa jokatzea. Bera da Ikastetxean bertan kokatuta dagoen Irakasleen Egoitzako zuzendari, egoitza horren pertsonala jangelako, garbiketako eta mantentzeko zerbitzuak eskaintzen dituena izanik.
- 2) Ikastetxeko Zuzendari Orokorrak eta Saileko Zuzendariak partaidetzen dituzten eskumenak dira:
 - a) Ikastetxearen lidergoia eta kudeaketa beraien gain hartzea Ikastetxea osoa Misioren zerbitzura jartzeko.
 - b) Ikastetxearen Berezko Izaera eta Hezkuntza-Proiektua benetan burutzeaz arduratzea.
 - c) Ikastetxeko eskola barruko zein kanpoko hezkuntza-jarduerak koordinatzea eta zuzentzea Zuzendaritza-Taldearekin batera, indarrean dauden legeen arabera eta Eskola-Kontseiluarenak zanpatu gabe.
 - d) Beraien Etapako Arduradunen, zikloko koordinatzaileen eta klustroen bileretarako deialdia egitea eta mahaiburu izatea.
 - e) Tutoreak, Koordinatzaileak eta Departamentuetako Arduradunak izendatzea, Zuzendaritza-Taldeari aholku eskatu eta gero.
 - f) Bertan dagoenean, mahaiburu izatea Ikastetxeko bileretan, pertsona bakarreko beste organoei onartutako ahalmenen kalterik gabe.
 - g) Aldian aldiro Erakunde Titularri jakinarazi Ikastetxeari buruzko erabaki, proiektu eta alderdirik

- garrantzitsuenak.
- h) Ikasketa-ziurtagiri eta dokumentuak onestea.
 - i) Eskola Kontseiluaren eta Klaustroen erabakiak behar bezala betetzen direla ziurtatzea.
 - j) Bizikidetzatza sustatzea eta Araudi honen terminoetan ematen diren aldaketak zuzentzea, indarrean dagoen legediaren arabera.
 - k) Departamentuek proposatutako testu-liburuen zerrenda onartzea, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren irizpideak kontuan harturik.
 - l) Araudi honetan adierazten diren beste batzuk edota Erakunde Titularrak agintzen dizkionak.
 - m) Ikasleen ordezkariak onestea, Etapako Arduradunen iritzia jakin ondoren.
 - 3) Lankidetzatza eta informazio erraz eta estua izango da Zuzendarien artean eta, ofizialki, Ikastetxeko Zuzendari Orokorra izango da azken arduraduna.

Art. 48.- Ikastetxeko Zuzendari Orokorren izendatzea, kargutik kentzea eta absentzia.

- 1) Ikastetxeko Erakunde Titularrak izendatu eta kargutik kentzen du Ikastetxeko Zuzendari Orokorra Eskola Kontseiluaren onespenerarekin. Erabakia Eskola-Kontseilukideen gehiengo absolutuarekin hartuko da. Adostasunik eza balego, Erakunde Titularrak hiru hautagai aurkeztuko ditu eta Kontseiluak bat aukeratu du gehiengo absolutuaz. Bi botazio egin ondoren proposatutako inork gehiengo absolutua lortuko ez balu, LODEren 61. artikuluan aipatzen den Adiskidetzatza Batzorderako deialdia egingo da. Gatazka hori konpontzen den bitartean Erakunde Titularrak behin-behineko Zuzendaria izenda dezake.
- 2) Ikastetxeko Zuzendari Orokorra izendatua izateko honakoa eskatzen da:
 - a) Irakasle izateko behar den titulazioa izatea.
 - b) Kargua hartzen den unean urtebeteko antzinatasuna izatea Ikastetxean edo irakaskuntzan hiru urtekoa izatea beste Ikastetxetan.
- 3) Ikastetxeko Zuzendari Orokorren ohiko agintaldiaren iraupena 4 urtekoa izango da.
- 4) Ikastetxeko Zuzendari Orokorrek bere kargua utzi beharko du:
 - a) Bere agintaldia amaitzean.
 - b) Erakunde Titularraren eta Eskola Kontseiluaren arteko erabakiz.
 - c) Dimititzeagatik.
 - d) Ikastetxean irakasle izateari uzteagatik.
 - e) Karguan jarduteko ezintasunagatik.
- 5) Entitate Titularrak zuhurtziaz kargugabe dezake edota kargutik kendu zuzendaria bere agintaldia burutu baino lehen bere eginkizunak betetzeari larriki uzten dionean, Eskola-Kontseiluaren aurretiazko arrazoitutako txostenari eta interesatuari audientziaz hartu ondoren. Zuhurtziazko kargugabetze honek ezin du inoiz hilabete baino gehiago iraun. Epe horren barruan birgaitze edota behin-betiko kargugabetze eman beharko da.
- 6) Ikastetxeko Zuzendari Orokorrek kargua uzten duenean edo luzaz absente dagoenean Erakunde Titularraren esku gelditzen da baldintzak betetzen dituen pertsona izendatzea, izendatze berria edo itzulera arte behin-behineko aginpidea hartuko duena. Aldi baterako agintaldi horrek ez du hiru hilabete segituitik gorako iraupena izango, Erakunde Titularrari zuzendari berria izendatzea ezinezkoa gertatzen zaionean izan ezik.

1.2 IKASTETXEKO ADMINISTRATZAILEA

Art. 49.- Administrazioaren eskumenak.

- 1) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldeakidea izatea.
- 2) Ikastetxeko Zuzendari Orokorren lehendakaritzapean, irakasle ez den pertsonalaren gaineko zeregin administratiboak, Administrazio eta Zerbitzuko pertsonalarenak eta baita Ikasleen Egoitzarenak ere koordinatuko ditu. Azken hau da Ikastetxeko jangelako, garbiketako obra eta mantentzeko zerbitzuen hornitzailea.
- 3) Ikastetxearen eta Ikasleen Egoitzaren jarduerak koordinatzeko bileren egitasmoa proposatuko du. Zuzendari Ikastetxe Saitetako Zuzendariek eta Egoitzako zerbitzu desberdinen buruek hartuko dute parte aipatutako bileretan Zuzendari Orokorren lehendakaritzapean.
- 4) Ikastetxearen eta Egoitzaren ekitaldi ekonomiko bakoitzeko txosten ekonomikoa, urteko kontu ematea, eta aurrekontuaren aurreproiektua egitea. Horretarako, estamentu desberdinetako zuzeneko arduraduneei beharrezko datuak eskatuko dizkie eta jaso egingo ditu.
- 5) Materiala erosi eta biltzeko zerbitzuak, eraikinen kontserbazioa, obrak, instalazioak, eta orokorrean, Ikastetxeko zerbitzuak antolatatu, administratu eta kudeatzea.
- 6) Indarreko legediaren arabera egin beharreko eskubide ekonomikoen zerga-bilketa eta likidazioa gainbegiratzea eta Ikastetxearen betebeharrak fiskalak burutu eta Gizarte Segurantzatza ordaintzen duela ziurtatzea.
- 7) Ikastetxearen banku kontuen ordainketa agindu eta horiek erabiltzea, Erakunde Titularrak emanak dizkion ahalmenak erabiliz.

- 8) Zuzendaritza-Taldeari ikastetxeko jarduera ekonomikoaren berri ematea.
- 9) Administrazioa zuzendu eta Ikastetxea eta Egoitzaren kontabilitatea eraman eta inbentarioa egitea.
- 10) Higiene eta segurtasunari buruzko xedapenak betetzen direla gainbegiratzea.
- 11) Erakunde Titularrari Ikastetxe eta Ikasleen Egoitzako jarduera ekonomikoari buruzko informazioa ematea.

Art. 50.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Administratzailea izendatu eta kargutik kentzea Ikastetxeko Erakunde Titularraren ardura izango da, Zuzendari Orokorren proposamenaz.

1.3 ETAPAKO ARDURADUNAK

Art. 51.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxeko Zuzendaritza-Talde eta bere Batzorde Iraunkorreko kide izatea, bien arteko bestelako adostasunetan izan ezik.
- 2) Etapako hezkuntza-jarduerak koordinatzea.
- 3) Etapako irakasleen bilerarako deialdia egin eta horren mahaiburu izatea.
- 4) Bizikidetzatza bultzatzea eta sortzen diren nahasmenduak zuzentzea Araudi honetan adierazitako baldintzetan.
- 5) Zuzendariari bere ardurapean dauden irakaskuntza jardueren garapenerako beharrezkoa den materiala erostea proposatzea.
- 6) Ikastetxeko Erakunde Titularrak hezkuntza alorrean agintzen dizkion beste guztiak.

Art. 52- Eremuak, Izendatzea eta kargutik kentzea.

- 1) Oro har, ondoko etapa bakoitzak izango du bere Arduraduna: Haur-Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.
- 2) Etapako Arduraduna izendatzea eta kargutik kentzea Ikastetxeko Erakunde Titularrari dagokio Zuzendari Orokorren proposamena jarraituz.
- 3) Etapako Arduradunaren kargugabetzea honegatik gerta daiteke:
 - a) Agintaldia amaitzeagatik.
 - b) Erakunde Titularraren erabakiarengatik.
 - c) Kargua betetzek ezintasunagatik.
 - d) Zuzendari Orokorrek onartutako dimisioagatik.

1.4 PASTORAL-ARDURADUNA

Art. 53.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldeakide izatea.
- 2) Hezkuntza-jardueraren pastoral ekimenen programazioa eta garapena koordinatu eta bultzatzea.
- 3) Pastoral taldearen bileretarako deialdia egitea eta, Zuzendaria bertan ez denean, horien mahaiburu izatea.
- 4) Erliijo Departamentua koordinatzea, Erliijo arloko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta fedea/kultura elkarrizketa bultzatuz.
- 5) Ikastetxeko hezkuntza-jardueraren programazio eta burutze lanetan eta tutoreen orientabide lanetan parte hartzea.
- 6) Pastoralekin zerikusia duten proiektuen arduradunak proposatzea (Justizia eta Bakea, ..), Zuzendariarekin adostuz.
- 7) Ikastetxearen pastoral ekintzak Parrokikoarekin eta Elizbarrutikoarekin behar duen koordinazioa bultzatzea.

Art. 54.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Pastoralaren Koordinatzailea izendatzea eta kargutik kentzea Ikastetxeko Erakunde Titularrari dagokio Zuzendari Orokorren proposamenari jarraituz.

1.5 IKASTETXEKO IDAZKARIA

Art. 55- Idazkariaren eskumenak.

- 1) Ikastetxeko dokumentazio ofiziala artxibatu, antolatu eta zaintzea Datu-Babesaren Legearen arabera.
- 2) Ikastetxean eraginik duten arlo akademikoko erabakiak betetzen sustatzea.
- 3) Zuzendaritza-Taldetik jasoko dituen aginduak bete eta dagozkien hartzaileei komunikazio ofizialak helaraztea.
- 4) Hezkuntza-eskakizun administratiboak izapidetu eta betetzea: Hezkuntza-Administrazioak eskatutako aktak,

- estatistikak, inprimakiak, txostenak eta memoriak.
- 5) Ikasturtean emandako ikasleen alta eta bajak ofizialki erregistratzea.
 - 6) Ikastetxeko tituluak, azterketetako akten ziurtagiriak eta espediente akademiko nahiz diziplinarioak egiaztatzea.
 - 7) Ikastetxeko Eskola Kontseiluaren bileretan Idazkari lanak egitea.
 - 8) Ikastetxearen historiako beharrezko diren estatistikak eta txostenak egitea.
 - 9) Ikasleen laguntzarako beken berri ematea.
 - 10) Ikastetxeko Idazkaritzan lanean diharduen pertsonalaren lana eratu eta koordinatzea.

Art. 56.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Erakunde Titularrak izendatzen du eta kargutik kentzen, Zuzendari Orokorren proposamenaz. Bakarra izango da Ikastetxeko sail guztietarako.

1.6 KALITATE-ARDURADUNA

Art. 57.- Kalitate-Arduradunaren eskumenak.

Honakook dira bere eskumenak:

- 1) Pertsonalaren kudeaketa-jarduerak antolatzea, bere Kalitate-Taldearekin batera.
- 2) Kudeaketen Kudeaketa-Prozesuan laguntzea.
- 3) Pertsonal kalitate-gaietan prestatzea.
- 4) Gogobetetasun-inkesten datuak kudeatzea.
- 5) Zuzendaritza-Taldearekin batera, prozesuen lana ikuskatzea.
- 6) Ikastetxeko auto-ebaluazioa zuzentzea eta prozesuen hobekuntza-arloak eta adierazleak biltzea.
- 7) Urteko Egitasmoa eta Plan Estrategikoaren lanketa eta kontrolean laguntzea Zuzendaritza-Taldeari.

Art. 58.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Kalitate-Arduraduna izendatu eta kargutik kentzea Ikastetxeko Erakunde Titularraren ardura izango da, Zuzendari Orokorren proposamenaz.

2. KAPITULUA: **ORGANO KOLEGIATUAK**

2.1 IKASTETXEKO ZUZENDARITZA-TALDEA

Art. 59.- Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldea.

- 1) Zuzendaritza-Taldea da Ikastetxe osoa Misioaren zerbitzura egon dadin ardura duen organoa. Beraz, Ikastetxearen kudeaketa eta hezkuntza-jarduera osoaren lidergoa hartu behar duena.
- 2) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldea honakook osatzen dute:
 - a) Ikastetxeko Zuzendari Orokorra.
 - b) Haur eta Lehen Hezkuntzaren saileko eta Bigarren Hezkuntzaren saileko zuzendariak.
 - c) Etapako Arduradunak.
 - d) Ikastetxeko Administrazioaileak.
 - e) Pastoral-Koordinatzaileak.
 - f) Erakunde Titularrak izendatutakoak.
 - g) Kalitate-Arduraduna.
- 3) Zuzendaritza-Taldeko bileretara joan daitezke Zuzendari Orokorrek deitutako beste pertsona batzuk ere, baina bozketa egiteko ahalmenik gabe. Adibidez, prozesu batzuetako jabeak.

Art. 60.- Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldearen eskumen eta betebeharrak.

Zuzendaritza-Taldeari Ikastetxearen lidergoa dagokio. Horregatik Kalitateko Kudeaketaren ezarpen eta garapenarekin konprometiturik dago. Bera da Prozesuen Kudeaketa-Prozesuaren PDCA aplikatzeko arduraduna.

Hortaz, bere eginkizunen artean hauexek daude: ordezkapena, zuzendaritza, informazioa, baliabideen kudeaketa et administrazioa, prozesuen planifikazioa, koordinazioa, suspertzea, kontrola eta ebaluazioa. Eta prozesuen kudeaketa-ekin koherente izanik honakook izango lirarteke:

- 1) Planifikazioa (P):
 - a) Hezkuntza-Elkartearen kanpoko eta barruko diagnostikoa egiten du.
 - b) Ikastetxeko dokumentu garrantzitsuenak landuko ditu: Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP, Berezko izaera, Misioa, Jomuga eta Balioak ...), Ikastetxearen Curriculum-Proiektua (ICP), Barne Araudia (BA), Plan Estrategikoa, Urteko egitasmoa eta bere Memoria.

- c) Eskola-Kontseiluak eta Erakunde Titularrak onetsi beharko dituzten erabakiak prestatu eta lantzen ditu.
 - d) Ikastetxearen Plan Estrategikoa (PE) eta dagozkion Urteko Egitasmoak lantzen ditu Eskola-Kontseiluak eta Erakunde Titularrak onetsi ditzan.
 - e) Giza eta bestelako baliabideen planifikazioa lantzen du (Urteko Antolakuntza) egitasmoak bete daitezten: irakasle eta tutoreen esleipena, departamentu buru eta zirkloko koordinatzaileena ... Pertsona bakarreko organoen izendatzea proposatzen du, irakasle-taldeak antolatzen ditu eta irakasleak zein hezkuntza-jardueretara esleitzeko irizpideak finkatzen, jarduera bakoitzaren arauen arabera.
 - f) Baliabide material eta pedagogikoen behar eta eskuragarritasunak lehenesten ditu.
 - g) Ikastetxeko ordutegiak, pertsonalaren ordutegi eta hezkuntza eta lan-egutegiak planifikatzen ditu indarrean dagoen legedia errespetatuz.
 - h) Plan estrategiko eta Urteko Egitasmoen ebaluazioak planifikatzen ditu. Prozesuetan lortu beharreko helburuak markatzen ditu. Urteko Egitasmoa eta bere Memorian doan Ikastetxearen ebaluazio-eredua planifikatzen du.
 - i) Kudeaketa-egitasmoak, prestakuntzarenak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak prestatu eta lantzen ditu Eskola-Kontseiluak onar ditzan.
 - j) Aurrekontuak egiteko irizpideak markatzen ditu.
 - k) Pertsonalaren jarduera-ebaluazioaren prozedurak lantzen ditu, baita Ikastetxean ematen diren bestelako jarduera eta proiektuen ebaluazioa ere. Kanpoko ebaluazioetan parte hartzen du.
 - l) Hausnarketa, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza suspertzeko metodo eta estrategiak planifikatzen ditu.
 - m) Ikastetxearen antolakuntza-atalen arteko koordinazioa planifikatzen du.
 - n) Organo kolegiatu eta lan-taldeen funtzionamendua hobetzeko proposamenak egiten ditu, beraien dinamika eta lan-metodoak orientatuz.
 - o) Eskola-Kontseiluak eta Erakunde Titularrak La Salle Sarearen beste ikastetxe edota bestelako erakunderekin harremanak estutzeko proposamenak egiten dizkie.
 - p) Klaustro eta Hezkuntza-Elkarte osoari Ikastetxeko bizitza eta kudeaketan guztion parte-hartzea erraztu eta sustatzeko proposamenak egiten dizkie.
 - q) Hezkuntza-Elkartekideen arteko harremanak errazteko asmoz baliagarri izan daitezkeen alde aurretiko neurriak proposatzen ditu Ikastetxeko bizikidetzak hobetzearren.
 - r) Ikasleen Gurasoko Elkarteari eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalari beraien jardunerako edota partaidetza eskatzen zaien prozesuetarako lortu beharreko helburuak proposatzen dizkie.
- 2) Gauzatzea (D):
- a) Ikastetxea zuzentzeko eta koordinatzeko irizpideak hartzen laguntzen dio Zuzendariari, eta halaber, haren jarduerari buruzko garrantzi handiko erabakietan.
 - b) Hezkuntza-jarduerak helarazten dizkie familia eta ikasleei, baita Ikastetxeko pertsonalari ere.
 - c) Gobernuko pertsona bakarreko organoen arteko koordinazioa eta komunikazioa errazten du.
 - d) Bere barneko komunikazioa sustatzen du.
 - e) Indarrean dauden legeak bete eta berearazten ditu.
 - f) Eskola-Kontseiluaren erabakiak gauzatzen ditu eta Klaustroan sortutako proposamenak eztabaidatzen ditu.
 - g) Curriculum eta curriculum-materialak onesten ditu eta prozesuetako jabeek, Departamentuek eta zirkloko taldeek proposatutako beste sistema pedagogiko eta hezkuntza-teknologiak eta Ikastetxean hartzea komeni direnak indarrean jartzen ditu.
 - h) Ikastetxeko prozesu guztietan etengabeko hobekuntzarako lan-taldeak ezartzen ditu helburuak lortzearren.
 - i) Ikastetxeko Urteko Egitasmoaren Memoria egiten du.
 - j) Pertsonalari lortutako zerbitzuak aitortzen dizkio, usten duen garaian eta eran.
 - k) Hezkuntza-Elkarteko informazio-bideak erabiltzen ditu zerbitzuen aitortpenerako.
 - l) Hezkuntza-Elkartearen ordezkari gisa jokatzeko du erakundearen aurrean.
 - m) Hezkuntza-Elkarte barruko informazio-bideak ezarri eta bikaintzen ditu, estamentuen eskariak jasoz eta eskola-kudeaketa eta administrazioari buruz informatuz.
 - Zera bermatu behar du:
 - i. Ikastetxeko burokraziaren kudeaketa.
 - ii. Administrazio-dokumentuen zainketa.
 - iii. Ikasleen dokumentazio akademikoaren ordenamenduaren ardura.
 - iv. Ordainketen ordenamenduaren kudeaketa.
 - n) Irakasle-taldeei beharrezko dituzten leku, lanabes eta denborak ematen dizkie, beraien jarduera eta ekintzen garapen hobereenerako.
 - o) Finantza-bide eta baliabide-sorburu osagarriak lortzeko informatu eta mugitzen da.
 - p) Eskola-Kontseiluari zuzendu beharreko egitasmo eta dokumentu guztiak prestatzen dizkio onetsi ditzan (Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua, Ikastetxearen Curriculum-Proiektua, Barne-Araudia, Urteko Egitasmoa, Memoria, Egutegiak ...).
 - q) Hezkuntza-Elkarte osoaren partaidetza sustatzen du, batik bat Misioari atxikitako prozesuetan: Pastoral, euskalgintza ...
 - r) Bertako erakundeekin eta, bereiziki, auzokoekin partaidetza sustatzen du.

- s) Ikastetxeko pertsonalaren prestakuntza bultzatzen du.
 - t) Irakasleen gogoeta eta bere jarduerari buruzko ikerketa ahalbidetzen duten berrikuntza-esperientzietan parte hartzea bultzatzen du.
 - u) Harreman-giro ona sustatzen du.
 - v) Beste ikastetxeekin, eta bereiziki, La Sallekoekin esperientzia eta praktika onen trukaketa sustatzen du.
- 3) Kontrola (C):
- a) Bezeroen (ikasle eta gurasoen) gogobetetasun-adierazleak, pertsonalarenak, auto-ebaluazioa eta prozesuen emaitzak biltzen ditu.
 - b) Ikastetxean sor daitezkeen gatazketan hartzen du esku.
 - c) Urteko Egitasmoan jarritako helburuen lorpenari buruz informatzen dio Eskola-Kontseiluari, honek Urteko Egitasmoaren Memoria onetsi dezan.
 - d) Eskola-kudeaketaren dinamika kontrolatzen du.
 - e) Aurrekontu eta bere gauzatzearen segimendua aztertzen du.
 - f) Ikastetxeko material didaktikoaren eskuragarritasun eta erabilpena kontrolatzen ditu.
 - g) Ikastetxearen bizimodua sistematizatzen duten prozesuen gauzatzea ikuskatu eta koordinatzen du: Hezkuntza-Proiektua, Curriculum-Proiektua, Barne-Araudia, Plan Estrategikoa eta Urteko Egitasmoa.
 - h) Prozesuen segimenduan hartzen du parte beraien jabeekin batera.
 - i) Ikastetxearen antolakuntzaren eraginkortasuna ebaluatzen du aldian-aldiri (bai prozesuetan, zein emaitzetan).
 - j) Ikastetxeko proiektu eta programen garapen eta ebaluazioa ikuskatzen ditu.
- 4) Doitzea (A):
- a) Eskola barru eta kanpoko jardueren garapenerako hobekuntzak sustatzen ditu, bere ekimenez edota Klaustroak proposatuta.
 - b) Lekuen eta denboraren erabilpen eta irizpide pedagogikoei buruzko hobekuntzak sustatzen ditu, bere ekimenez edota Klaustroak proposatuta.
 - c) Hezkuntza-Elkarteko estamentu guztiek proposatutako hobekuntzak sustatzen ditu, baita gure bezero eta hornitzaileen ere.
 - d) Prozesuen Kudeaketa-Prozesuaren doitzea sistematizatzen du (PGP).
 - e) Prozesuen doitzea sistematizatzen du ebaluazio-emaitzen arabera.

Art. 61.- Jarduera

- 1) Zuzendaritza-Taldearen eraginkortasun handiagoa lortzearen, bere barruan Batzorde Iraunkor bat osatuko da, Zuzendaritza-Taldearen barruan erabakitako gaien jarraipen hurbila egin eta betearazteko. Zuzendari Orokorra, sailletako zuzendariak eta Etapako Arduradunak dira bere kideak. Beste pertsona batzuk ere dei daitezke bertan tratatuko diren gaiak eztabaidatzeko, baina bozketa ahalmenik gabe.
- 2) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldea eta bere Batzorde Iraunkorra hamabostero behin bilduko dira asteak txandakatuz.
- 3) Bileretako egitasmoak Zuzendari Orokorrek egingo ditu kideen iradokizunak bildu ondoren eta egitasmoen berri emango die bilera hasi aurretik. Bilera guztietan bertako partaide batek bilduko du bileraren akta, Ikastetxeko beste pertsonalari tratatuko gaien berri eta erabakiak jakinaraziz.

2.2 ESKOLA-KONTSEILUA

Art. 62.- Eskola-Kontseilua.

Eskola Kontseilua da Ikastetxeko Hezkuntza-Elkarte guztiko parte-hartze organorik gorena. Horren eskumena Ikastetxean ematen diren erregimen orokorreko irakaskuntza arautu guztietara hedatzen da eta, hala behar balitz, jarduera osagarri eta eskolatik kanpokoetara.

Art. 63.- Osaera.

- 1) Eskola Kontseilua osatuko dutenak honakook izango dira:
 - a) Zuzendari Orokorra.
 - b) Ikastetxeko Erakunde Titularraren hiru ordezkari.
 - c) Irakasleen lau ordezkari.
 - d) Guraso edo tutore legalen arteko lau ordezkari haiek eta haien artean hautatuak.
 - e) Ikasleen bi ordezkari, haiek eta DBH 1 baino zaharragoen artean hautatuak.
 - f) Administrazio eta zerbitzuetako pertsonen ordezkari bat.
- 2) Eskola-Kontseilua osatu ondoren, honek aukeratuko du beraien artean gizaseme eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko duten neurri hezigarriak bultzatuko dituen pertsona bat.
- 3) Ikastetxeko Idazkariak Eskola-Kontseiluan hartuko du parte, hitza izango du baina botorik ez.

Art. 64.- Hautaketa, izendatzea eta bete gabeko postuak.

Hezkuntza-Elkarteko estamentu bakoitzaren ordezkarien hautaketa eta izendatzea eta haien hutsunetako behin-behineko postuen betetzea indarrean dagoen legediaren arabera egingo da.

Art. 65.- Eskumenak.

- 1) Eskola Kontseiluaren eskumena izango da:
 - a) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua onetsi eta aplikatzea.
 - b) Erakunde Titularraren proposamenez Ikastetxeko Barne Erregimenaren Araudia onestea eta haren beranduagoko aldaketak.
 - c) Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldeak eginiko Urteko Egitasmoa onetsi eta ebaluatzea.
 - d) Erakunde Titularraren proposamenez Ikastetxearen Aurrekontua eta Urteko Kontu-ematea onestea.
 - e) Zuzendaria izendatu eta kargutik kentzeko erabakian esku hartzea Araudi honetako 47. artikuluan ikusitakoaren arabera.
 - f) Irakasleak hautatu eta horiek lanetik botatzeko erabakian esku hartzea indarreko legediaren eta araudi honetako 18. artikuluen arabera.
 - g) Itundutako mailetan ikasleak onartzeari buruzko arau orokorrak betetzen direla bermatzea.
 - h) Ikasleekin hartu beharreko neurri zuzentzaileak onestea bizikidetzaren berreskuratzeko, horren nahasmendu larriak gertatu badira.
 - i) Bizikidetzaren aurkako jokabide larriak buruzko ebazpenez informaturik egotea eta indarrean dagoen araudiaren betetzearen zainketa. Guraso edota tutoreek hala eskatuta Zuzendariak hartutako erabakiak berrikus ditzake, edota hala behar izanez gero, beharrezko neurriak proposatzea.
 - j) Ikastetxearen ildo pedagogiko orokorrean parte hartzea eta eskolaz kanpoko ekintzen eta jardueren osagarrien programazio eta garapenerako ildoak egitea.
 - k) Eskolaz kanpoko jarduerak burutzeko ikasleentzako gurasoen ekarpenak onestea Erakunde Titularraren proposamenez, hala behar izanez gero, eta eskola zerbitzuena itundutako mailetan, eskumena hori Hezkuntza-Administrazioak onartuko balu.
 - l) Kultur, kirol eta jolas-jardueretan ikastetxeak izango duen parte-hartzeari buruzko irizpideak ezartzea eta baita ikastetxeak lankidetzaren eskaini dezakeen laguntza ekintzetan izango duena ere.
 - m) Beste ikastetxekin lankidetzaren harremanak ezartzea kultura eta hezkuntza-helburuekin.
 - n) Ikastetxearen jardueren orokorra gainbegiratzea administrazio eta irakaskuntza-ikuspegietatik.
 - o) Ikastetxearen bizikidetzari lagunduko dizkieten neurri eta ekimenak proposatzea, baita gizasemeen eta emakumeen arteko berdintasunari eta gatazken lantze etikoari ere.
- 2) Aurreko zenbakiaren b), c), d), i), j), k), l) eta m) letretan adierazitakoarekin zerkusua duten Erakunde Titularraren proposamenak Eskola Kontseiluak aldatu ahal izango ditu, Erakunde Titularrari horretarako adostasuna bereziki eskatu ondoren.

Art 66.- Jarduerako araubidea.

Eskola Kontseiluaren jarduerak honako arauen bidez arautuko da:

- 1) Eskola Kontseiluaren bileretarako deialdiak Zuzendari Orokorrak egingo ditu eta berau izango da mahaiburua. Deialdia, gutxienez, zortzi egun aurretik egin beharko da eta horrekin batera eguneko gai-zerrenda joango da. Premiak horrela agintzen duenean, deialdia hogeita lau ordu aurretik egin ahal izango da.
- 2) Eskola Kontseilua, normalean, urtean hiru aldiz bilduko da, ikasturteak dituen hiru hiruhileko horietako bakoitzean. Eta Lehendakariaren ekimenez aparteko izaeraz bilduko da, horrek eskaturik edo Erakunde Titularraren edo gutxienez Kontseiluko kideen erdiak egindako eskariaz.
- 3) Kontseilua berritzeko Araudi honen 64. artikuluen arabera jokatu da.
- 4) Eskola Kontseiluaren eraketak balio osoa izango du bileretara bertako kideen erdiak baino bat gehiago agertzen direnean.
- 5) Lehendakariak pertsona bakarreko gainerako organoei eta txostenerako edo aholkularitzarako beharrezko ikusten dituen pertsonen bileretarako deialdia egin ahal izango die. Hauek ordea, hitza izango dute baina botoirik ez.
- 6) Erabakiak hartzeko bertaratutako erdiak baino bat gehiagoren botoa izan beharko da. Berdinketa kasuetan Lehendakariaren botoa erabakitzailerak izango da.
- 7) Kide guztiek boto partikularrak emateko eskubidea izango dute eta baita horiek aktetan jasota geratzeko ere.
- 8) Botazioak isilpekoak izango dira pertsonen buruzkoak direnean edota botoa emateko eskubidea duen bertaratutako batek hala eskatzen duenean.
- 9) Aztertutako gaiak isilpean gorde beharko dituzte bertaratutako guztiek.
- 10) Ikastetxeko Idazkaria izango da Kontseiluko Idazkaria. Bilera guztien akta jasoko du baina hurrengo bileran eskubide osoa izango da bidezko diren zuzenketak egitea eskatzeko. Onetsi ondoren Idazkariak sinatu egingo du eta fede emango du Lehendakariaren oniritziarekin.
- 11) Kontseiluko kideek Lehendakariari azaldu beharko diote bileretara ez agertzearen arrazoia.
- 12) Ikastetxeko Zuzendaritzaren eta Kontseiluaren arteko adostasunez Batzordeak eratu ahal izango dira, horiek sortzeko erabakian zehazten diren osaera, eskumenak, iraupen eta jarduerako araubidea izanik.
- 13) Eskola Kontseiluko ikasleentzako ordezkariak bertako eztabaida guztietan hartuko dute parte, Ikastetxeko

Zuzendari Orokorra izendatu eta kargutik kentzeko eta irakasleak lanetik botatzeko erabakietan izan ezik.

2.3 IRAKASLEEN KLAUSTROAK

Art. 67.- Irakasleen Klaustrorak.

Ikastetxeko irakasleek parte hartzeko organo propioak dira Irakasleen Klaustrorak. Ikastetxeko ikasketa curriculumetako irakasle guztiak dira osatzen dutenak, baita Orientatzailea eta laguntza eta aniztasunerako irakasleak ere. Unez uneko gaietan aholku eman dezaketen zenbait pertsona ere egon daitezke klaustroratan. Hauek hitza izango dute baina botorik ez.

Art. 68.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan, Curriculum-Proiektuan, Urteko Egitasmoan eta beraien gauzatze, kontrola eta ebaluazioan parte hartzea.
- 2) Ikastetxean orokorrean eragina izan duten gaiei buruzko informazioa izatea, eta zehazkiago, bizikidetzaren aurkako jokabide larri edota oso larrien kasuetan.
- 3) Eskola Kontseilurako ordezkariak hautatzea, Araudi honetako 60. eta 61. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- 4) Ikastetxeko bizikidetzari lagunduko dizkioten neurri eta ekimenak proposatzea.
- 5) Ikastetxeko antolakuntza, jarduera eta bizikidetzari buruzko arauak informatzea.
- 6) Ikastetxeko jarduera orokorra, eskola-errendimenduari buruzko bilakaera eta Ikastetxeak parte hartuko dituen kanpoko eta barneko ebaluazioei buruzko emaitzak aztertzea eta baloratzea.
- 7) Irakasleen prestakuntzan eta pedagogi ikerketa eta esperimentazioan ekimenak sustatzea.

Art. 69.- Sailak eta eskumenak.

Klaustrorako sailen jarduera ondoko hau izango da:

- 1) Ikastetxeko Erakunde Titularrak sailak sor ditzake bakoitzean dagokion Klaustrorak gaiak zehazkiago tratatzeko.
- 2) Sail bakoitzeko Klaustrorako sail horretako irakasle guztiak hartuko dute parte, Orientatzailea eta laguntza-gelako irakasleak barne.
- 3) Sail bakoitzeko Klaustroraren eskumenak 68. artikuluan aipatutako berak dira.

Art. 70.- Jarduerako araubidea.

Klaustrorako jarduerako araubidea ondoko hau izango da:

- 1) Klaustrorako bilerarako deialdia Zuzendariak egingo du eta bera izango da mahaiburu.
- 2) Deialdia gutxienez zortzi egun aurretik egingo da eta horri eguneko gai-zerrenda bateratuko zaio. Kasuaren premiak hala eskatzen duenean, deialdia hogeita lau orduko aurrerapenarekin egin ahal izango da.
- 3) Klaustroraren bilerarako deialdia beste edozein pertsonari egin ahal izango zaio, Zuzendariak horren txostena edo aholkularitza egokia dela ikusten badu.
- 4) Bilerara joan diren erdiak baino bat gehiagoren botoa beharko da gutxienez erabakiak hartzeko. Berdinketa izanez gero, Lehendakariaren botoa erabakitzailea izango da.
- 5) Kide guztiak boto partikularrak emateko eskubidea izango dute eta baita horiek aktetan jasota geratzekoa ere.
- 6) Botazioak isilpekoak izango dira pertsonen buruzkoak direnean edota botoa emateko eskubidea duen bertaratutako norbaitek hala eskatzen duenean.
- 7) Aztertutako gaiak isilpean gorde beharko dituzte bertaratutako guztiak.
- 8) Klaustrorako Idazkaria eta Moderatzailea Klaustrorak berak izendatuko ditu Saileko Zuzendariaren proposamenez. Idazkariak bilera guztien akta jasoko du, baina hurrengo bileran eskubide osoa izango da bidezko diren zuzenketak egitea eskatzeko.
- 9) Denek Ikastetxeko Sail guztien hezkuntza-jardueraren berri izan dezaten, Zuzendari Orokorrek urtean behin gutxienez Klaustrorako guztiak egingo die bilerarako deialdia.

Art. 71.- Mailak, Zikloak eta Etapak.

- 1) Saileko Zuzendariak zatitu egin dezake bere klaustrorako Maila, Ziklo edo Etapako gai espezifikoez hitz egiteko.
- 2) Maila, Ziklo edo Etapako irakasle guztiak hartuko dute parte dagozkien bileretan eta baita Orientatzaileak ere, beharrezkoa izango balitz.

2.4 PASTORAL-TALDEA

Art. 72.- Pastoral-Taldea.

Ikastetxean egiten diren eskola eta eskolaz kanpoko jarduerak guztietan ekintza ebanjelizatzailea eta pastoral bultzatu eta koordinatzen duten pertsona taldea da. Pastoralaren koordinatzaileek koordinatu eta zuzentzen dituzte.

Art. 73.- Osaera.

- 1) Pastoralaren Koordinatzailea.
- 2) Sail bakoitzeko Ziklo edo Etapetako ordezkariak.
- 3) Pastoral-jarduera edo arloen arduradunak.
- 4) Zuzendaritza-Taldeak horretarako izendatutako pertsonak.

Art. 74.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuko izari ebanjelizatzaile duten helburu eta jarduerak proposatzea etapa guztietarako eta beraien jarraipena egitea.
- 2) Urteko Egitasmoko pastoral-jarduera guztiak planifikatzea, Hezkuntza-Proiektu eta Plan Estrategikoaren arabera.
- 3) Pastoral-prozesuen PDCA egitea bere atal guztietan (Justizia eta Bakea, Aisialdia, mezu esplizituan ...), beroriek koordinatu, partaidetza bultzatu eta jakinaraztea Hezkuntza-Elkarte osoari.
- 4) Erlijio Departamentuarekin lankidetzan jardutea erlijio irakaskuntzan.
- 5) Fede taldeen eta horien bultzatzaileen jardueraz arduratzea, beharrezkoa duen garapenerako bitarteko egokiak hornituz.
- 6) Eskolako pastoral-jarduera familien eta Hezkuntza-Elkarteko beste kideen artean hedatzea.



IV. ATALBURUA:

HEZKUNTZA KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

Art. 75.- Hezkuntza-koordinaziorako organoak.

- 1) Hezkuntza koordinaziorako organoak pertsona bakarrekoak edo kolegiatuak izan daitezke.
- 2) Pertsona bakarreko hezkuntza-koordinaziorako organoak ondokoak dira: Orientatzailea, Hezkuntza-Proiektuaren Arduraduna, Aniztasunaren Trataerako Arduraduna, Zikloko Koordinatzailea, Departamentu-burua, Tutorea eta Liburuzaina.
- 3) Hezkuntza-koordinaziorako organo kolegiatuak honakoak dira: Irakasle-Taldeak eta Departamentuak.

1. KAPITULUA: PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

1.1 ORIENTATZAILEA

Art. 76.- Eskumenak.

- 1) Orientazio eta Aniztasunaren Trataerarako Departamentua koordinatzeko eta haren ardura hartzeko pertsona da.
- 2) Aniztasunaren Trataeraren Egitasmoa planifikatu eta koordinatzea.
- 3) Tutoretzaren Urteko Egitasmoko neurriak planifikatu eta koordinatzea.
- 4) Ikastetxeko Orientazio-Egitasmoa garatzea, Tutoreei aholkuak emanez eta Etapa-Arduradunekin koordinatuz.
- 5) Ikasleen gurasoen formazio eta partaidetza sustatzea.
- 6) Orientazio-Departamentuko bileretarako dei egin eta bilerak zuzentzea.
- 7) Ikasle bakoitzaren banakako ebaluaketa psikopedagogikoa egitea eta lanerako proposamenak eskaintzea.
- 8) Tutoretza eta aniztasun-prozesuetako jabeekin era oso koordinatuan aritzea.

Art. 77.- Izendatze eta kargu uztea.

Orientatzailea Ikastetxeko Zuzendari Orokorrek izendatzen eta karguz uzten du Saileko Zuzendariaren proposamenez.

1.2 HIZKUNTZA-PROIEKTUAREN ARDURADUNA

Art. 78.- Eskumenak.

Ikastetxeak bere Hezkuntza-Proiektuan hizkuntzen irakaskuntza eta erabilpenarekin zerikusia duten alderdi guztiak planifikatzea eta Curriculum-Proiektuan hizkuntzei emango zaien trataera erabakitzea. Hizkuntza-Proiektuak Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan bildutako hizkuntzen ikaskuntza eta erabilpen-irizpideak garatuko ditu eta behar duten trataera zehaztuko Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan.

Art. 79.- Izendatze eta kargu uztea.

Hizkuntza-Proiektuaren Arduraduna Ikastetxeko Zuzendari Orokorrak izendatzen eta karguz uzten du Saileko Zuzendariaren proposamenez.

1.3 ZIKLOKO KOORDINATZAILEA

Zikloko Koordinatzailea bere jarduera, batik bat, ziklo horretan duen Ikastetxeko irakasle bat da.

Art. 80.- Eskumenak.

- 1) Zikloko ikasleen hezkuntza-jardueraren garapena sustatu eta koordinatzea, bertako tutoreen bidez.
- 2) Zikloko ikasleen bizikidetzaren sustatu eta koordinatzea.
- 3) Zikloko irakasle-taldearen bilerarako deialdia egin eta zuzentzea, Etapako Arduraduna edota Zuzendariaren ezean.

Art. 81.- Izendatze eta kargu uztea.

Ikastetxeko Zuzendari Orokorrak izendatzen eta karguz uzten du Saileko Zuzendariaren proposamenez.

1.4 DEPARTAMENTU-BURUA

Departamentuak arloei esleituta izateaz gain, hezkuntza-esparru berritzaile eta berezietan ere daude loturik: Orientazio eta Aniztasunaren Trataerarako Departamentua (Hezkuntza-indartzea, Curriculum-Aniztasuna, Behar Bereziak, Etorrinak) eta baita pedagogi berrikuntzari dagozkionak: SEIN proiektua edota IKTak. Departamentu horietan irakasle bat izango da arduradun nagusia, hots, departamentu-burua.

Art. 82.- Eskumenak.

- 1) Departamentuko bileretarako deia egin eta moderatzaile izatea.
- 2) Ikasturte bakoitzaren arloko programazioen prestakuntzan Departamentuko lana koordinatzea, koherentzia bermatzen saiatuz maila eta zikloetan zehar edukia banatzerakoan; gutxienezko helburuak eta ebaluazio-irizpideak proposatzerakoan eta curriculum-materialak hautatzerakoan.
- 3) Ikastetxeko urteko aurrekontua lantzerakoan Departamentuko premiei buruzko txosten egokiak prestatzea.

Art. 83.- Izendatze eta kargu uztea.

Departamentuko burua Saileko Zuzendariak Departamentuko kideen artean izendatu eta kentzen du kargutik Departamentuko kideen iritzia entzun ondoren.

1.5 TUTOREA

Tutorea dagokion ikasle-taldearen irakasle eta arduradun nagusia da.

Art. 84.- Eskumenak.

- 1) Taldearen eta bere ardurapeko ikasle bakoitzaren hezkuntza-prozesuaren garapenaren erantzule zuzena izatea.
- 2) Bere kargu duen taldeko ikasleen ebaluazio- saioak zuzendu eta moderatzaile izatea.
- 3) Taldearen martxa eta ikasle bakoitzaren ezaugarri eta berezitasunak ezagutzea.
- 4) Taldeko irakasleen hezkuntza-jarduera eta ikasleei buruzko informazioa koordinatzea.
- 5) Bere etapa edota zikloko beste tutoreekin tutoretza-jarduera koordinatzea.
- 6) Zikloko Koordinatzaile edota Etapako Arduradunarekin, Orientatzailearekin eta Aniztasunaren Trataerarako Arduradunarekin harreman estuak mantentzea.
- 7) Familiari beharrezko maiztasunez harrera egin eta ikasleen hezkuntza-prozesuaren berri ematea.

Art. 85.- Izendatze eta kargu uztea.

Saileko Zuzendariak izendatzen eta kargutik kentzen du Zuzendaritza-Taldearen proposamenez.

1.6 LIBURUZAINA

Art. 86.-Eskumenak.

- 1) Liburutegiaren antolakuntza, mantentze eta erabilpen egokia ziurtatzea Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldearen laguntzaz.
- 2) Liburutegiko fondoaren erregistroa antolatzea.
- 3) Liburutegiko erregistro informatikoak gaurkotuta mantentzea.
- 4) Mailegu-zerbitzua antolatzea: arauak, orduak eta zainketa.
- 5) Liburutegirako fondo eta material berrien lorpen eta erosketetan aholku ematea Zuzendaritza-Taldeari.
- 6) Liburutegiko zerbitzuak sustatu eta iragartzea Hezkuntza-Elkartekide guztiei.

Art. 87.- Izendatze eta kargu uztea.

Ikastetxeko Zuzendari Orokorrek izendatu eta kargutik kentzen du Liburuzaina.

2. KAPITULUA: ORGANO KOLEGIATUAK

2.1 IRAKASLE-TALDEA

Art. 88.- Osaera.

Irakasle-Taldea dagokion ziklo, maila, Ziklo edo Etapako irakasleek osatzen dute.

Art. 89.- Eskumenak.

- 1) Maila, Ziklo edo Etapako arloen arteko lotura egitea.
- 2) Klaustroari ebaluazio- irizpide orokorrak proposatzea.
- 3) Proiektu, egokitzapen eta adarkatze kurrikularak prestatzen laguntzea.
- 4) Ekimen eta esperientzia pedagogiko eta didaktikoak proposatzea.
- 5) Ikasleak ebaluatzea eta beren promozioari buruz eta tituluak emateari buruz erabakitzea.

2.2 ORIENTAZIO ETA ANIZTASUNAREN TRATAERARAKO DEPARTAMENTUA

Aniztasunaren Trataerarako neurri guztiak planifikatu eta koordinatzeko ardura duen departamentua da: hezkuntza-indartzeko neurriak, curriculum-aniztasuna, behar bereziak, etorkinak, eta supergaituen arretarako neurriak.

Art. 90.- Osaera.

- 1) Orientatzailea.
- 2) Pedagogoko Terapeutak.
- 3) Indartze-irakasleak, curriculum-aniztasunekoak eta etorkinekin dabilzanak.

Bileretan eskaini beharreko zerbitzuari dagozkion Etapa-Arduradunak eta Tutoreek ere parte hartuko dute.

Art. 91.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxeko orientazio-jardueren lantze, gauzatzeko eta ebaluatzearen koordinazioa.
- 2) Ikastetxeko organoari aholku teknikoak ematea ikasleentzako ebaluazio eta promozio-irizpideak eskainiz, hezkuntza-indartze programa eta curriculum-egokitzapenak proposatuz.
- 3) Lanbide eta hezkuntza-aukerei buruzko informazioa eta orientabidea ematea ikasle eta gurasoei.
- 4) Curriculum-aniztasuneko programak lantzea, orientabide pertsonal eta profesionalerako programa, jarduerak eta estrategiak eskaintzea.
- 5) Ikasle eta gurasoekin orientabide-programak aplikatzea.
- 6) Orientabiderako, tutoretzarako eta irakasleentzako prestakuntzarako jarduerak eskaini, lagundu eta koordinatzea.
- 7) Ikasleentzako taldekatze, ordutegi eta antolakuntza aholkatzea.
- 8) Taldeko eta bakarkako curriculum-egokitzapenetan laguntzea eta beste departamentuekin koordinatzea.
- 9) Ikasleentzako ebaluazio psikopedagogikoak burutzeko eta jarduteko proposamenak lantzea.
- 10) Dagozkion administrazioekin komunikatu eta koordinatzea: Berritzegune, Hezkuntza Berezia, Gizarte-Zerbitzuak, ... ahalik eta kanpoko laguntzarik gehienak lortzearen.

2.3 HIZKUNTZA PROIEKTU ETA EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO DEPARTAMENTUA

Ikastetxeak bere Hezkuntza-Proiektuan landu beharreko hizkuntzen irakaskuntza eta erabilpenarekin zerikusia duten alderdi eta neurriak planifikatzeko departamentua da.

Art. 92.- Egitura eta osaera.

- 1) Ikastetxearen Hizkuntza-Proiektua planifikatzeko arduraduna.
- 2) Euskararen Normalkuntzarako arduraduna.
- 3) Euskara, Gaztelania, Ingelesa eta Frantsesa departamentuetako buruak.

Art. 93.- Eskumenak.

- 1) Ikastetxearen Hizkuntza-Proiektua osatzea: Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan dauden hizkuntzen ikaskuntza eta erabilpen-irizpideak planifikatzea eta garatzea eta behar duten trataera zehaztea Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan.
- 2) Ikasleek DBHren bukaeran bi hizkuntza ofizialak menperatzen dutela (B.2 maila) eta hizkuntza arrotzean gai direla (B.1) bermatzea Hizkuntza-Proiektuan hartutako neurrien bidez. Ikasleak eleanitzak izan behar dira.
- 3) Euskara izan dadila, oinarri handi batean, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko bitarteko hizkuntza eta bera izan dadila Hezkuntza-Elkartekideek dituzten harremanak eta bizimodua eratzeko ohiko hizkuntza, horretarako behar diren euskararen eta euskal kulturaren ezagutza, garatze eta hedatze-neurriak erabiliz.

2.4 BESTELAKO DEPARTAMENTUAK

Art. 94.- Egitura eta osaera.

- 1) Ikastetxean arlo edota irakasgai bera ematen duten irakasle-taldea da, edota arlo multzo bera edota hezkuntza-proiektu bera eramaten duen irakasle-taldea: SEIN, IKT ...
- 2) Ikastetxearen Erakunde Titularren eskumena da Departamentuak sortu eta aldatzea.
- 3) Erliijo Departamentua Pastoral-Taldearekin koordinatu beharko da.

Art. 95.- Eskumenak.

- 1) Ikasturte bakoitzeko arloko curriculumaren lanketa koordinatzea, arloko programazio bertikalaren koherentzia bermatuz eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren irizpideei jarraituz.
- 2) Bere sailako Klaustroari arlo horri buruzko ebaluazio-irizpideak proposatzea.
- 3) Arloko curriculum-aniztasun, egokitzapen eta proiektuetan laguntzea.
- 4) Bere arloari dagozkion ekimen eta esperientzia pedagogikoak proposatzea.



V. ATALBURUA:

BIZIKIDETZA NAHASTEA

1. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK

Art. 96.- Bizikidetzaren balioa.

Ikastetxeko bizikidetzak egokia ezinbesteko baldintza da Hezkuntza-Elkartekide desberdinak -bereziki ikasleak-pixkanaka-pixkanaka heldutasunera irits daitezen, baita Ikastetxea bera ere osoki hartuta eta, ondorioz, Ikastetxearen Berezko Izaeraren helburuak lor daitezen.

Art. 97.- Nahasmendua eta zuzenketa.

- 1) Araudi honetako 101. artikulua aipatzen dituen bizikidetzak arauak, zerbait eginez edo ez eginez, hausten dituzten Hezkuntza-Elkartekideek nahastu egiten dute Ikastetxeko bizikidetzak.
- 2) Bizikidetzak nahasten dutenak zuzenduak izango dira indarreko legedian eta Araudi honetan adierazitako bitarteko eta prozeduren arabera.

2. KAPITULUA: IKASLEAK

2.1 XEDAPEN OROKORRAK

Art. 98.- Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko printzipio orokorrak.

- 1) Ikasle guztiak eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Eta beren adinaren eta egiten dituzten ikasketen mailaren arabera baliatuko dituzte eskubide eta betebeharrak horiek.
- 2) Hezkuntza-elkarteko kide guztiak, ikasleei dagokienez, Dekretu honetan bildu diren eskubideak errespetatu behar dituzte. Beste guztien eskubideen errespetua izango da ikasleentzako muga beren eskubideez baliatzerakoan.
- 3) Ikastetxeetako gobernu-organismoak eta irakasleek ikasleen eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak zorrotz betetzen direla bermatuko dute, Dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki.

Art. 99.- Printzipio orokorrak ikasleek beren betebeharrak ez betetzean izandako jokabideak zuzentzeko.

- 1) Ikasleen betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desegokitzat. Ez-betetze horrek hezkuntza-elkarteko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideetat edo bizikidetzari horri kalte larria eragiten dion jokabideetat hartuko da.
- 2) Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez.
- 3) Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarritzko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.
- 4) Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzaren eta kalte-ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.

Art. 100.- Bizikidetzaren planak ikastetxeen barruko bizitza arautzean.

- 1) Jokabideak zuzentzeko prozedurak ikastetxeen praktikan integratu beharko dira hezkuntzako beste baliabide bat izango balira bezala. Bizikidetzarako planean jasota behar du jokabideak zuzentzeko prozedurak.
- 2) Bizikidetzaren plan horrek berdinaren artean, generoen artean eta kulturen artean bizikidetzarako funtsezko oinarritzat hartuko du norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazka modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kalte ordaintzeko bitartekotza-prozedurak jaso beharko dira, baita bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko zuzentzarauak eta ikastetxean bizikidetzaren behatokia antolatzeko neurriak ere.

Art. 101.- Zuzendu behar diren jokabideak.

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.

Art. 102.-Ikaslearen adinari egokitzea.

- 1) Araudi honetan xedatutakoa derrigorrez aplikatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrerako kasu guztietan.
- 2) Lehen Hezkuntzan dekretu honetan ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonak edota objektuak balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.
- 3) Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritz.

2.2 JOKABIDE-MOTA DESBERDINAK

Art. 103.- Jokabide desegokiak.

- 1) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- 2) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.

- 3) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-elkarteko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- 4) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baina ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- 5) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik gabeko jarrera, keinu edo hitzak.
- 6) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak (telefono mugikorrak) ikastetxean erabiltzea.
- 7) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- 8) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-elkarteko inori kalterik eragiten ez badio.
- 9) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- 10) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzara-rauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- 11) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- 12) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-elkarteko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzara horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

Art. 104.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak.

- 1) Ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- 2) Ikaskideen edo hezkuntza-elkarteko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baina honako hauek ere: hezkuntza-elkarteko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- 3) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- 4) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldatetak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzailerei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- 5) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-elkarteko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- 6) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- 7) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- 8) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- 9) Ordena nahastan duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- 10) Hezkuntza-elkarteko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- 11) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-elkarteko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- 12) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- 13) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.
- 14) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-elkarteko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

Art. 105.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

- 1) Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik

- gabeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-elkarteko kideen aurkako adierazpen biziki laido garri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- 2) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
 - 3) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikiilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
 - 4) **Hezkuntza-elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.**
 - 5) Ikastetxeko hezkuntza-elkarteko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
 - 6) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratatu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
 - 7) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
 - 8) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.
 - 9) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere hezkuntza-elkarteko edozein kiderentzako egoera arriskuak sortzen badituzte.
 - 10) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldeztu aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
 - 11) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilita aritzea.
 - 12) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutetzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
 - 13) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
 - 14) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluan horren 13. artikuluan bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
 - 15) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-elkarteko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkako bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkako bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartze, biltze, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

Art. 106.- Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna.

Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

2.3 JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA ETA BESTELAKO ONDORIOAK

Art. 107.- Jokabide desegokiaren zuzenketa.

Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:

- 1) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- 2) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- 3) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- 4) Jokabide desegokiaren nolokotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- 5) Zuzendaria, ikasketa-buruaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.

Art. 108.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.

Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

- b) Ohartarazpen idatzia.
 - c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
 - d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
 - e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.
 - f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
 - g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
 - h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.
 - i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.
- 2) 1.g), 1.h) eta 1.i) artikuluetan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) artikuluetan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

Art. 109.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

- 1) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:
 - a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.
 - b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
 - c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
 - d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.
- 2) Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

Art. 110.- Ikastetxez aldatzeko proposamena.

- 1) Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:
 - a) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 1.n) artikuluan zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeita eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.
 - b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatikoko jazarpena berarekin badakar.
 - c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.
 - d) Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.
- 2) Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzatzeko ari bada, ikaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gaueko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.
- 3) Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

Art. 111.- Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.

- 1) Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela eta, etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.

- 2) Ikastetxeek ezarriko dute proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

Art. 112.- Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

Art. 113.- Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larri edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-eraren aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren ordeaz, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

Art. 114.- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

- 1) Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:
 - a) Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
 - b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuaren ondorioz jasan dezaketena.
 - c) Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta oinarrizko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.
 - d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.
- 2) Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrenatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:
 - a) Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
 - b) Aurretiaz neurri zuzentzaileak jaso ez izana.
 - c) Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezinari kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
 - d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
 - e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
 - f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.
- 3) Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:
 - a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
 - b) Kaltea nahita egin izatea.
 - c) Kaltea apropos egitea edo aldeaz aurretik prestatu ondoren egitea.
 - d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuitatu izana.
 - e) Eskola-erloto ordezkariak kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

2.4 JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

Art.115.-Xedapen orokorrak.

- 1) Ikastetxeetako zuzendariak ahalegina egingo dute bizikidetzara-arazoak konpontzeko, Araudi honetako V. atalean araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, atal honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilia.
- 2) Lehentasunez, zuzendariak ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezkeen: hezkuntza-elkarteko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-elkarteko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.
- 3) Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larriak eragiten diotenak).
- 4) Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilia zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

Art. 116.- Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

- 1) Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.
- 2) Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:
 - a) Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.
 - b) Ikastetxez aldatzeko adierazitako jokabideak eman badira.
 - c) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

Art. 117.- Prozedura bertan behera uztea adiskidetzeari gertatu delako.

- 1) Adiskidetzeari gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzeari izango da, gertakari hauek ematen badira:
 - a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkakoa dela edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-elkarteko gainerako kideen eskubideak.
 - b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
 - c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasu, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.
 - d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.
- 2) Adiskidetzeari ez du bertan behera utziko prozedura 110. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

Art. 118.- Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.

- 1) Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.
- 2) Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta ikastetxez aldatzeko adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

Art. 119.- Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea ikastetxe aldatzeko adierazitakoren bat baldin bada.

Art. 120.- Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

- 1) Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetze-aldia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizios edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikioa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela alde aurretik egiaztatuz gero.
- 2) Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerrortzetat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.
- 3) Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

Art. 121.- Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

- 1) Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzeari lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzarako konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute. Bizikidetzarako konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.
- 2) Bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.
- 3) Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

2.5 NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

2.5.1 Xedapen orokorrak

Art. 122.- Xedapen orokorrak.

Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko erabili behar diren prozedurak. Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko atal honetan arautu diren prozeduretako bat erabili behar da derrigorrez, betiere, aurreko atalean jaso diren aukerako bideak aplikatzea posible izan ez denean.

Art. 123.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

- 1) Ikasgelan, ikastetxeko beste eremuetan edota ikastetxetik kanpo ikasleak haien zainketa zuzenaren pean dauden bitartean, ikastetxeko irakasle guztiek ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute.
- 2) Irakasle guztiek eskumena dute haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana, ikasketa-buruarengana edo une horretan ikastetxearen arduradun den zuzendaritzako taldeko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.
- 3) Zuzendaria da kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa.
- 4) Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua da Dekretu honek ezartzen dituen mugetan zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

Art. 124.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.

- 1) Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adieraziko dira.
- 2) Ondorio horietarako, eskola-egunak hauek izango dira: egun baliodun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldiak izan ezik.

Art. 125.- Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua.

Ondoko kasu hauetan, ezin izango zaito inolako prozedurari ekin, ezta desegokiak diren, kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri edukita ere:

- a) Bizikidetzan kalte larriak eragin dituen jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.
- b) Bizikidetzaren kontrakoa den jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei baino gehiago igaro direnean.
- c) Jokabide desegokia osatzen duten ekintzak edo ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

Art. 126.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko uea.

- 1) Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:
 - a) Kontrakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitzen den unetik aurrera.
 - b) Jokabide desegokiak zuzentzeko zer neurri aplikatuko diren erabakitzen den unetik aurrera.
- 2) Ondoko kasu hauetan ezin izango da neurri zuzentzailerik ezarri:
 - a) Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro badira.
 - b) Bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.
 - c) Jokabide desegokiaren kasuan, hogeit egun baino gehiago igaro badira.

Art. 127.- Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.

- 1) Araudi honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin behar dira.
- 2) Atal honetan arautu diren prozeduretan jaso diren erreklamazioak jartzeko epea hiru eguneko izango da.
- 3) Araudi honetan arautu diren prozeduren barruan jaso diren eta hezkuntza-elkarteko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

Art. 128.- Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezetzatzeko bidea.

- 1) Jokabide zuzenduari buruzko datuak dagokien ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agiritan soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira ikastetxeko fitxategi edota erregistro iraunkorrera transferituko eta, maiatzaren 3ko

- 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat zaindu eta aldi baterako beste ikastetxe batera eraman ahal izango dira.
- 2) Edonola ere, Dekretu honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu behar dira. Horrela, bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira. Eta, bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.
 - 3) Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

Art. 129.- Erreklamazioak eta helegiteak.

- 1) Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak edo, haren lekuan, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa aurkeztu ahal du Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan. Organo edo Kontseilu horrek erreklamazioa berrikusi ahal du, 65. artikuluan ezarri denari jarraiki.
- 2) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahal du dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari hiru egun baldioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 3) Erreklamazio ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioke Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

2.5.2 Jokabide desegokiak zuzenketa

Art. 130.- Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura.

- 1) Jokabide desegokiak berehala eta ahoz zuzendu dira.
- 2) Nolanahi ere, jokabide desegokia zein izan den eta aplikatu izan diren neurri zuzentzaileak idatziz jaso ez badira eta, ikasle adingabeen kasuan, ikaslearen gurasoak edota legezko ordezkariak jakinaren gainean jarri ez badira, ezin izango da 104.13 artikuluan aurreikusitakoa aplikatu.
- 3) Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta jokabide desegokiak zuzentzeari buruz idatziz edota euskarri informatikoetan jaso diren agiriak ikasturte akademikoa amaitzean suntsituko dira.

2.5.3 Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko ohiko prozedura

Art. 131.- Ohiko prozeduraren erabilera.

- 1) Ohiko prozedura erabili ahal da zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten gertakariak nahiz gertakari horien egilea nor izan den bistakoa denean.
- 2) Prozedura horri ofizioz ekingo zaio eta idazki bidez egingo da. Prozedurak, gutxienez, honako zati hauek izango ditu: hasierako egintza; ikasleak eta, hala badagokio, ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak, esateko zer duten entzutea; eta prozeduraren amaiera ekarriko duen erabakia.

Art. 132.- Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

- 1) Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:
 - a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 - b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batean kokatzea.
 - c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak, Araudi honetan zehaztu direnen artean.
 - d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa zein den, eta organoari horretarako ahalmena esleitzen dion araua.
- 2) Era berean, Araudi honetan aurreikusi diren baketzegatiko edo konpontzegatiko eteteak jasoko dira.

Art. 133.- Hasierako jakinarazpena eta alde aurretiko entzunaldirako zitazioa.

- 1) Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.
- 2) Hasierako jakinarazpenarekin bat, ikaslearen alde aurretiko entzunaldirako zitazioa bidaliko da, baita, hala badagokio, haren gurasoen edota legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Mintzagai dugun zitazioan, halaber, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

Art. 134.- Behin-behineko neurriak.

- 1) Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, bere iritziz beharrezkoa denean eta bizikidetzari eragindako kaltearen larritasunaren arabera, zuzendariak behin-behineko zenbait neurri ezarri ahal izango

- ditu ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatzeko direla bermatzeko. Neurri horien artean ondoko bi hauek leudeke: batetik, ikasleak eskoletara joateko duen eskubidea aldi baterako etetea, ikasleari eskola zehatz batzuetara edo eskola guztietara joatea debekatuz; bestetik, ikaslea behin-behinekoz taldez aldatzea.
- 2) Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte bere horretan mantendu ahal izango dira. Behin-behineko neurriak, bidenabar, ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino latzagoak izan. Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso-osorik zenbatuko da, aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.
 - 3) Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien guraso edo legezko ordezkariak jakinaraziko zaie behin-behineko neurri ezarriak zein diren.

Art. 135.- Entzunaldiaren izapidea.

- 1) Entzunaldiaren izapidearen bidez, entzuna izateko eta bere burua defendatzeko ikasleak duen eskubidea bermatu ahal izango da. Horrenbestez, hasierako egintzaren edukia gain nahiz ikastetxeak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoaren gain ikasleak egoki deritza alegazioak egiteko aukera izango du.
- 2) Ikaslearen entzunaldia egitea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina dena delakoa izanik eta hartu beharreko neurria hartuta ere. Adinez txikiak diren ikasleek entzunaldian beren gurasoek edo legezko ordezkariak laguntzeko eskubidea dute. Azken horiek, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere, ikasleak bereak egin ondoren.
- 3) Ondoko kasu hauetan, ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkariak entzunaldia egin beharko zaie derrigor:
 - a) Ikasle adingabe horiei leporatzen zaien jokabidea ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragin dituenean.
 - b) Bizikidetzaren kontrako neurriak direnean, betiere, aplikatu litezkeen neurri jakinarazien artean 35. artikuluko 1.g), 1.h) eta 1.i) ataletan zehaztutakoren bat badago.
- 4) Entzunaldiaren izapidea hasierako egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, betiere, gurasoen edo legezko ordezkariaren entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Hala ez bada, entzunaldia, gehienez ere, hiru eguneko epean egin beharko da. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak bere martxari eutsiko dio.
- 5) Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

Art. 136.- Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.

- 1) Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero hartarako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agerraraziko dira:
 - a) Oro har, ikasleei edo, ikasle adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariak ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak edo bizikidetzaren kontrako jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua.
 - b) Bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakizunen deskribapena.
 - c) Gaitzesten zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola ziurtatzea, zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan portaera hori jasota dagoela azalduz.
 - d) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoaren deklarazioak ere.
 - e) Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarririk, aringarririk, edo ikaslea errugabetezko zirkunstantziarik ba ote dagoen ala ez.
 - f) Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri horiek hasierako egintzaren jakinarazpenean aukerakotzat jo direnak izango dira, ez besterik.
 - g) Neurriak zer unetatik aurrera aplikatu behar diren. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.
 - h) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean aipatu erreklamazioa aurkezteko epea.
- 2) Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariak jakinaraziko zaie.
- 3) Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta ikastetxeko Irakasle klustroari, horren berri izan dezaten.

Art. 137.- Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

- 1) Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari. Honako kasu honetan ere helaraziko zaio idazkiaren kopia: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastetxera

- bertaratzeko edo garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.
- 2) Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako edo Udaletako Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaien neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.
 - 3) Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

Art. 138.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea.

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuz gero, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagokion neurriak proposatuko ditu.

Art. 139.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia.

- 1) Batetik, zein neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta, bestetik, ikaslearen edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoen edo legezko ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak neurri hori berretsiko du, betiere Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera dela irizten badio, bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.
- 2) Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak bere eskumenak eskuordetu ahalko dizkio ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian ezarrita dituen ordezkari batzordeei edo horretarako eratutako Batzorde bati, betiere Ordezkaritza Organo Gorenako kideek erabakia gehiengo osoz onartzen badute. Nolanahi ere, Dekretu honen aplikazioarekin lotutako funtzioak betetzeko, Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseilurako legez ezarritako gurasoen, ikasleen eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatu sistema ezarri ahalko da.
- 3) Ordezkaritzako Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak gehienez ere hiru eguneko epean hartu beharko du bere erabakia.

Art. 140.- Jakinarazpena.

- 1) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.
- 2) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren hitzarmena Lurraldeko Ordezkariari eta dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, betiere, 137. artikuluan jasotako kasuetan.

2.5.4 Ohiz kanpoko prozedura

Art. 141.- Ohiz kanpoko prozedura noiz erabili beharra dagoen.

Ohiz kanpoko prozedura ondoko kasu hauetan erabili beharko da:

- a) Zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten ekintzak edo ekintza horien egilea nor izan den kaltetuak edo hirugarren pertsonen salatutakoaren bidez soilik ezagutzen direnean, edota zeinahi arrazoiengatik, ekintza nahiz egilea bistakoak ez direnean.
- b) Ikastetxez aldatzeko aipatzen diren kasuetan.
- c) Zuzendariak, kasuaren inguruabarrak ikusirik, neurri zuzentzaile egokia hartzeko ohiz kanpoko prozedura egokiagoa dela iritzi duenean.

Art. 142.- Ohiz kanpoko prozedurari ekiteko epea.

Zuzendariak prozedurari ekin beharko dio. Prozedurari idatziz ekin behar zaio, gehienez ere, ikastetxeko bizikidetzaren kontrako jokabidea edo bizikidetzaren kontrako kalte larriak eragiten duen jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutu eta hiru egunetara.

Art. 143.- Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:

- a) Ikasleari leporatzen zaien jokabidearen azalpena; jokabide hori kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzaren kontrako kalte larriak eragin ditzaketen jokabideen artean egon daitekeeneko zehaztapena; eta neurri zuzentzaileak aplikatu behar izaneko aukera.
- b) Izapidegilea izendatzea.
- c) Araudi honetako atal honetan jaso diren eta aplikatu litezkeen aukerako bideak erabiliz prozedura eteteko aukera.

Art. 144.- Izapidegilea izendatzea.

- 1) Zuzendariak, ikastetxeko irakasleen artean, izapidegilea izendatuko du.
- 2) Irakasle izendatuak izendapena onartu beharko du, betiere, abstenitzeko erregelamenduzko arrazoirik gertatzen ez bada. Erregelamenduzko ziorik gertatzen bada, irakasleak izendapenari uko egin beharko dio.
- 3) Izendapenetik kontatzen hasita egun bateko epean, izapidegileak abstentzio-idazkia aurkezten badu, emandako arrazoiak aztertu eta beste izapidegile bat izendatu beharko du zuzendariak, arrazoi justifikatuak daudela iritiz gero. Bestela, hasierako izendapena berretsiko du.

Art. 145.- Hasierako egintzaren nahiz behin-behineko balizko neurrien jakinarazpena.

- 1) Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.
- 2) Zuzendariak behin-behineko neurriak ezarriko balitu, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie, betiere, ohiko prozedurari buruzko 134. artikuluan zehaztu diren baldintzetan.

Art. 146.- Izapidegilea errefusatzeko aukera.

- 1) Ikasleak edo, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak izapidegilea errefusatu ahal izango dute, betiere, izapidegileari uko egiteko arauzko arrazoiak bat gertatzen bada.
- 2) Mintzagai dugun jazoera gertatuko balitz eta izapidegileak uko egiteko arrazoiak onartuko balitu, izapidegile berria izendatuko litzateke. Izapidegileak ez baditu onartzen ezesteko arrazoiak, zuzendariak bi aldeek emandako arrazoiak aztertu eta —aldeaz aurretik egoki iritizitako txosten eta aholkuak jasota— hiru eguneko epean ebatzi beharko du.
- 3) Zuzendariaren ebazpena ikasleari edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

Art. 147.- Izapidegilearen jardunak.

Izapidegileak ofizioz gauzatu ditu ikasle interesdunari leporatzen zaion jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki deritzon ikerketa guztiak. Era berean, kontuan izan beharko ditu ikasleak entzunaldiaren aurretik ekar ditzakeen alegazioak, agiriak edo epaiketarako zehazki elementu.

Art. 148.- Jakinarazpena Fiskaltzari.

- 1) Izapidegileak jokabide nahiz gertakari egotziak delituztat edota falta penaltzat har daitezkeela uste badu, halaxe jakinarazi beharko dio zuzendariari, hala badagokio, kasua Fiskaltzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jartze aldera.
- 2) Ikaslea adingabea bada, Adingabeen Erantzukizun Penalarri buruzko urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioak betetze aldera, ondoko hauek jakinarazi beharko dira ere:
 - a) Hala bada, hezkuntzaren eremuan jokabideak zuzendu izana.
 - b) Hala bada, baketzea gertatu izana.
 - c) Hala bada, konponketa gertatu izana edo konpontzeko konpromisoa hartua egotea.
- 3) Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio zuzendariak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari.

Art. 149.- Entzunaldirako zitazioa.

- 1) Izapidegileak ikaslea zitatuko du entzunaldia egin dezan. Ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari ere jakinaraziko die. Zitazioan, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira. 134.3 artikuluan zehaztutako kasuetan, ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari derrigorrez hitzordua emango zaie.
- 2) Zitazioarekin idatzi bat bidaliko da, zeinean honako hauek agertuko diren:
 - a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 - b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batekin bat datorren.
 - c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplikatu litezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.
 - d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa eta organoari ahalmen hori esleitzen dion araua.
 - e) Kontrako proba-baliabideak proposatzeko aukera.

Art. 150.- Entzunaldiaren izapidea.

- 1) Entzunaldiaren izapidea gauzatzeko, 135. artikuluan ohiko prozedurari buruz esandakoa aplikatu daiteke.
- 2) Gainera, ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari prozedurako agiri guztiak erakutsi behar zaizkie —betiere, indarrean dauden legeek ezartzen duten zuzentasunaz— egoki deritzotena alegatu dezaten eta egoki deritzeten proba-bitartekoak proposatu ditzaten.

Art. 151.- Ebazpen-Proposamena.

- 1) Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, izapidegileak frogak -aldez aurretik zeudenak, bereziki lekukoek deklarazioak, eta ikasleak edo guraso edo legezko ordezkariak aurkeztu ahal izan dituztenak- balioetsiko ditu, baita aurkeztutako alegazioak ere; gertakizunak argitzeko eta balioesteko beharrezko irizitako jardunak gauzatu ditu, eta ondorioen bat ateratzen duenean, ebazpen-proposamena idatzita aurkeztuko du.
- 2) Proposamena idatzi ostean, horren berri emango zaio ikasleari. Horretarako, entzunaldirako ezarri diren epe nahiz baldintza beretan deituko zaio, berriz, ikasleari. Alegazio berriak izanez gero, jaso egingo dira, eta proposamena zuzendariari helaraziko zaio, aldaketarik gabe eta jasotako alegazio berriekin batera.

Art. 152.- Ohiz kanpoko prozedura amaitzeko epea.

- 1) Ohiz kanpoko prozedurari ekingo zitzaiola interesdunari eta, hala balegokio, interesdunaren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi zitzaizkien egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamabost eguneko epean amaitu beharra dago ohiz kanpoko prozedura.
- 2) Bi aste epe horri abstentzioak edo arbuiazeak ebazteko erabili diren egunak gehituko zaizkio, baita ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragin dituzten eta beharrezkoak ez diren atzerapenetan galdu diren egunak ere.
- 3) Ikertu beharreko ekintzen konplexutasunak edo antzerako inguruabarrek hala eskatuko balute, zuzendariak gehienez ere hamar egun luzatu ahal izango du prozedura amaitzeko epea.
- 4) Epea luzaturik ebazpen proposamenik egongo ez balitz, prozedura igarotzat joko da, betiere, interesdunak edota haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragindako atzerapenek sortua ez bada. Igarotze horrek ez du eragotziko delitu edo falta penaltzat har daitezkeen gertakariak edo ez-egiteak Fiskaltzari jakinarazi beharra, betiere, zigor arloan gertakaria edo ez-egitea preskribatu ez bada.

Art. 153.- Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena.

- 1) Ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti, eta honako hauek bildu beharko ditu: ikasleari leporatu zaizkion gertakizunak; neurri zuzentzailea(k) ezartzeko arrazoiak; erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak, hala badagokio; neurrien edukia eta neurriak zer unetatik aurrera aplikatuko diren; erreklamazioa zer Organori aurkeztu behar zaion, eta azken hori aurkezteko epea.
- 2) Ikasleari eta, hala badagokio, ikaslearen guraso edo legezko ordezkariari ebazpenaren jakinarazpena helaraziko zaie.
- 3) Ebazpen hori Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari zuzendariak egoki deritzon moduan jakinaraziko zaie.
- 4) 147. artikuluan zehaztu diren kasuetan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari eta, hala badagokio, dagozkion Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie ebazpena.

3. KAPITULUA: HEZKUNTZA-ELKARTEKO GAINERAKO KIDEAK**Art. 154.- Zuzenketak.**

Hezkuntza-Elkarteko kide desberdinen eta Ikastetxeko Erakunde Titularraren (lan, gizarte, merkatu edo kanoniko arlokoa) arteko harremanaren erregimen berezitik ondorioztatzen den erregulazioaren eragozpenik gabe, Hezkuntza-Elkartekide hauen bizikidetzan nahastuz gero, Ikastetxeko Erakunde Titularrak zuzendu ahal izan dezake ondorengo eran:

- a) Ohartarazpen pribatuz.
- b) Ohartarazpen publikoz.
- c) Ikastetxeko instalazio, jarduera eta zerbitzuak erabili ahal izatea murriztuz.



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Erreferentzia.

Araudi honetako artikulua hezkuntzarako eskubidea erregulatzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoko (LODE) 25, 54.3, 55 eta 57.1 artikuluetan ezarritakoaren babesean xedatu dira bertan LOEk ezarritako aldaketekin. Hauxe gain kontuan oso hartu dugu EAeko Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak 2008-XII-16ko buletinean argitaratutakoa eta La Salle Sarearen Irizpideak.

Bigarrena.- Lan-harremanak.

Araudi honetan adierazitakoaren eragozpenik gabe, Erakunde Titularraren eta kontrataturiko pertsonalaren arteko lan harremanak beren araudi bereziak erregulatuko ditu.

Halaber, langileek enpresan izango duten ordezkaritza ere araudi berezi horrek erregulatuko du.

Hirugarrena.- Irakasle erlijiosoak.

Ikastetxean irakaskuntza itunduetako irakasle gisa zerbitzuak eskaintzen dituzten erlijiosoei Hezkuntza-Itunei buruzko Oinarriko Arauen Araudiko Laugarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoa aplikatuko zaie, Konstituzioak babestutako estatutu bereziaren, Estatu Espainiarraren eta Eliz Agintaritzaren arteko Akordioen eta Askatasun Erlijiosoaren Lege Organikoren eragozpenik gabe.

Laugarrena.- Ikastetxeko Adiskideak.

Ikastetxeko Adiskideak beren borondatez jarduten duten Ikastetxeko hezkuntza-helburuak lortzeko, edota laguntza ekonomikoa eskainiz edota bere inguruarekin Ikastetxearen harremanak errazten dituzten pertsonak dira.



XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ikastetxeko Eskola Kontseiluak, Erakunde Titularraren proposamenez, 1998ko maiatzaren 21ean onetsitako Ikastetxeko Barne Erregimeneko Araudia indargabetuta gelditzen da.



AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Araudia aldatzea.

Araudi hau aldatzea Ikastetxeko Erakunde Titularraren eskumenekoa da eta honek Eskola Kontseiluaren onespenera jarri beharko du.

Bigarrena.- Indarrean sartzea.

Araudi hau 2009ko Irailaren 1ean sartuko da indarrean. Bere indarraldia, Ikastetxea hezkuntza-itunen erregimenean mantentzearen arabera dago.